


Elkarrizketa:

JUGATXI JIMENEZ >
"Dantzatik baino kiroletik du gehiago gimnasia erritmikoak"

"Egunero lau orduz entrenatzen dugu. Gogorra da, baina merezi du" 12.or



Sozioekonomia

Aiala Vidrioko langileak akordioa lortzeko bidean, greba eta gero 6. or.

Amurrio

Herritarren parte hartzearen bidez osatuko dute Hirigintza plana 3. or.

Laudio

Udalbatzak ez du onartu jaien antolaketa eragileen esku uztea 4. or.



Iritziak:

ANDONI ALDEKOA 2.or.
MIKEL CORMENZANA 6. or.
IRATI MENDIGUREN 7. or.
GAIZKA BARAÑANO 10. or.
IGOR ARZUAGA 12. or.
JUAN MANUEL ETXEBARRIA 11.or
IRATI MARAÑON 16. or

aiaraldea



Aiaraldeko hamabostekaria
2014 /// Urtarrilak 30 ///
OSTEGUNA
8. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Tradizioa eta gazteria lotuko dituzte kintoek Urduñan eta Amurrion



"Bizilagunak etxera" eguna egingo da Laudion, kulturak harremantzea xede



Kulturarteko Zubiak elkarteak "Bizilagunak etxera" eguna antolatu du Laudion. Ekimenak beste kultura bateko familia bat bazkaltzeragonbidatzean datza; otordua beste egun batean itzultzeko konpromisoarekin. Lehenengo zita otsailaren 15ean edo 16an izango da, partaideek adostuko baitute hobekien datorkien eguna. Izena emateko kulturarteko zubiak@gmail.com helbidera mezu bat bidali behar da, batetik zenbat pertsonentzat sukaldatzeko prest dagoen zehaztuz, eta bestetik bisita egiteko eguna aukeratuz. Euskal Herriko beste toki batzuetan ere egin da ekimena.

SAN BLASAK: Terentzio VII txerria, Pantxi Ibarra eta Jose Antonio Unzaga baserritarrak izango ditu protagonista Laudion egingo den azokak. 10 or.

MATRIKULAZIOA
2014

otsailaren
3tik 14ra

ezagutu
nahi?



Informazio bilerak

- 2012an jaiotakoak otsailaren 3an arratsaldeko 6etan Kili-Kolo Haur Hezkuntzan (Etxegoien, 19)
- 2011an jaiotakoak otsailaren 5ean arratsaldeko 6etan Aresketa Ikastolan (Aresketa auzoa, 2)
- Luiaondo herrian otsailaren 4an arratsaldeko 5:30ean Gizarte Etxean



herri onurako entitatea izendatua



ARESKETA IKASTOLA

aresketa auzoa, 2
01470 Amurrio (Araba)
945890360
aresketaikastola@aresketaikastola.net
www.aresketaikastola.net

_iritzia



Andoni
Aldekoa
KAZETARIA

_Balkoitik

Hizkuntza eta kultura

Hizkuntza eta kultura dugu, zalantzarik gabe, herri baten izaeraren ezaugarri nagusietako bat.

Alde anitzeko erakundeek, estatuek milaka milioi dolar eta milaka milioi euro inbertitzen dituzte bioaniztasunean. Garrantzitsua da gure ondare biologiko eta ekologikoari eustea. Ziur nago. Baina bioaniztasuna bezain garrantzitsua da gizateriarentzat aniztasun linguistikoa eta kulturala kontserbatzea. Eta gure kasuan, euskarari eutsi behar diogu gure herri izaeraren ezinbesteko osagaitzat, eta Euskara indartu behar dugu etorkizunari begira, aniztasun linguistikoa eta kulturala bermatzeko.

Nirea duzue euskarazko irakaskuntza orokorrean sartzetik izan ez duen ia-ia azken belaunaldia. Ezin duzue imajinatu horrek maila pertsonalean ematen didan nahigabea. Eta eten hori gainditzeko egindako ahaleginak, behin ere nahi-koak izan ez direnak. Euskara behar bezala ez menperatzeak izugarri aztoratzen nau maila pertsonalean. Nahigabea ematen dit, nahigabea ematen dio nire emazte Nereari, eta ez dut nahi nire alabei ere nahigabea ematerik.

Ingelesa ikasi eta menperatzea nahi dut, harro nago gaztelaniak dakarren ondareaz, baina euskara ere haien ondare pertsonalean egotea nahi dut. Aiaraldea Egunkaria bezalako komunikabideak ezinbesteko osagaia dira hizkuntza baten dibulgaziorako eta benetako hedapenerako.



Manu
Harakina

Duela 30 urte hobeto geunden. Abortuaren legeak emakumeen askatasuna murrizten du, ez die erabakitze gaitasuna ematen. Nire ustez libre eta doakoa izan beharko litzake. Jende asko dago behin baino gehiagotan abortatu duena. Horregatik kontrola eraman beharko litzateke.



Arantza
Irakaslea

Datorren umeak zerbaiten falta badu abortatzeko aukera ondo iruditzen zait.

Ama izan baino lehen abortuaren kontra bangoen. Ondo pentsatu behar da. Orokorrean abortuaren alde nago, zergatiaren arabera. Eztabaidatzeko eta pentsatzeko oso gai mamitsua da. Lehen zegoen moduan mantenduko nuke nik legea.

_GALDERA

Abortatzeko eskubidearen alde al zaude? Zergatik?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita

BIDEA WEB-GUNEAN



Mario
Tabernaria

Alde nago, errespetatu behar dela iruditzen zait. Bakoitzak erabaki behar du egoeraren arabera haurdunaldiarekin jarraitu edo ez. Bortxaketa kasuan ez zait ondo iruditzen. Emakume bakoitzaren kasuaren arabera abortatzeko aukera eskaini edo mugatu beharko litzateke. Norbaitek umea ez badu zaindu nahi adopziora bidera liteke.



Doraly
Etxeko langilea

Abortuaren kontra nago. Bizitza bat kentzea da. Emakumeekiko tratua txarra eta abortatzea berdina da. Bortxaketa kasuan abortatzea beste gauza bat iruditzen zait, justifikatuta egongo litzatekeelako.

Bik jaten duten tokian hiruk jan dezakete.



Ane
Erizaina

Niretzako onartezina da, emakume eta gizaki moduan. Atzerapausoak ematen gaude behin eta berriro. Zer proposatuko nukeen? Denak kalera ateratzea eta gure eskubideen alde borrokatzea. Abortua doakoa izan behar da, Gizarte Segurantzaren horretarako ordaintzen dugu guk ere bai. Eskubidea izan behar da, nahiz eta osasuntsua ez den.

TWITTERen

#albisteizanda

@hesiantaldea Aretan emandako akustikoaren laburpentsu bat (Fran eta Zuriñe) @aiaraldea

@aiaraldea Soldadak ez dituztela kobratu salatu zuten atzo @cd_laudio-ko lehen taldeko jokalariek (argazkia @rafaarberas)



@atxulaur_ke 25ean larunbata. DERIO B-ATXULAU K.E lbaiondo zelaian Derio. Bigarren maila. Bigarren multzotik Amaiera: 1-1.

Laudioko herri azoka alternatiboan @emaioon emakumeen elkarte feministaren eza-gutzeko aukera izan da

@eukenealdai "HOBETZE-KO BIDEA" film laburraren aurkezpena, Amurrioko Gazte Alaia-APDEMAren eskutik @aiaraldea @iratxeestrada

@GazteAsanUrduna Urtarrilaren 31tik aurrera ostiralero euskal dantzen ikastaroa gaztetxean! Animatu!

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

LAGUNTZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA
Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Nerbio Kalea 1, 3. esk. Laudio. Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54
Aiaira Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152

_gutunak

Amurrioko txakur kakak

Manu Gonzalez (Amurrio)

Manu dut izena eta zortekotzat dut nire burua txakur bat eta animaliak aske jolasteko gune batetik gertu bizi naizelako (Landako auzoko ibai inguruan bizi naiz, Laudio eta Urduña arteko paseoa etorkizunean joango den tokian).

Pena ematen dit herritarrek eta bereziki, umeek, gurasoen beldurragatik minen zelai hauetan ezin jolasteak. Nik, zoritxarrez, egunean hiru edo lau aldiz zeharkatu behar dut zelaia, eta txakur kakekin ezusteko bat edo beste izan dut.

Udaltzaingoan askotan kexatu naiz eta begiratu bat emateko paseorik ez dutela egin iruditzen zait. Horregatik, fosforito koloreko makil batzuk ipini behar izan ditut gorotza dagoen tokietan berriro ez zapaltzeko. Eta, ez dira gutxi izan.

Jabeek txakurren kakak jasotzeko araudia martxan jarri duelako arduraduna udaletxea bada, berea da legea betetzeko neurriak hartzeko erantzukizuna ere.

Eskutitz honen bidez herritar guztiak zentzudunagoak izateko deia luzatzen dut, Amurriogatik. Gutxi batzuei bost axola izanagatik ez dugu bi edo hiru lagun arduragabekeria besteok zertan ordaindu.

Euskararen egoera Araban

Rober Gutierrez (Bai Euskarari Ziuertagiria)

Bosgarren inkesta Soziolinguistikoa arabera, Arabako bilakaera soziolinguistikoa hobera egin du. Hala ere, 10etik 9k baino gehiagok erdara du lehen hizkuntza. Zorionez, 16 eta 24 urtekoen artean, % 46,2 elebidunak dira. Horrek erakusten du hezkuntza sistemak berebiziko garrantzia duela hizkuntzaren transmisioan eta normalizazioan, pertsona euskaldun eleantizunak sortzeko eta hezteko. Baina eremu formal horretatik kanpo, erabilera jaitxi egingen da; gurason utzikieragatik, garatzen ari diren politikak ez nahikoak direlako, gaztetxoentzat eredu direnek beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituztelako, etab. Gaztetxo gehienentzat gaztelaniaz bizitzea da eguneroko errealitatea, normala dena. Euskarak ez ditu betetzen gaztelar batzuetan funtzioak. Esfortzu apartekoa egin behar dute gazte-lerak ez den hizkuntza bat erabiltzeko. Horretarako motibazio berezirik ez badute, ez dute erabiliko. Hezkuntza sistemaren ekarpena da gazte horiek euskaraz aritzeko gaitasuna izatea, eta ez da gutxi, baina hortik hizkuntza erabilera-ohiturak erroto aldatzeko urratsa egiteko funtsezkoa izango da alor eta estamentu guztiak inplikatzeko, bai eta hauen arteko koordinazioa, elkarlana eta osagarritasuna ere.

_herriz herri

Amurrio



Herriko antolaketa herritarren artean proposatuko dute Argazkia: Aiaraldea.com

Hirigintza plana parte hartze prozesu bidez egingo dute

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa Aranoa

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) lurraldea antolatze-ko balio duen tresna da eta horretarako Udalak parte hartze prozesu bat abian jarri zuen iaz. Horrela, herritarrek hirigune, lurralde eta batzar administratiboa diren hiru ardatzen inguruan euren iritzia plazaratu dituzte.

Guztira, bost fase izango dira eta bi egin dira dagoeneko.

Lehenengoa uztailean bukatu zen eta herritarren ekarpenekin diagnostiko bat egin zen.

Bigarrenean, irizpide eta helburu nagusien aurrerapena eta formularioa egin zen eta legeak dioen

moduan, dokumentuaren inguruko iradokizunak aurkezteko bi hilabete-ko epea ezarri zen.

Horretarako, eta herritarren parte hartze zabala izateko, udal-letzeko sotoan eta Bañueta kiroldegian dokumentua azaltzen zuten bi erakusketa jarri ziren. Udaleko web gunean are dokumentazio guztia eta galderak egiteko aukera egon zen.

Parte-hartze zuzena

Ana Izquierdo Amurrioko Udaleko parte hartze prozesuko ardura-dunak partaidetza zuzenari dago-kionez, HAPOren aurrerapen fase

horretan agertzen diren proposamenei buruzko hiru saio egin zirela dio, "hiru gaietan banaturik: lurralde orokorra, hirigunea eta batzorde administratiboa".

Bertan, hobekuntzak eta proposamenak landu ziren. Guztira, 67 pertsonak parte hartu zuten eta iritzi orokorren artean adibidez, bide berriak egin beharrean existitzen diren bideen erabilera bultzatzea eta ingurumenaren gaineko eragina eta gastuak ekiditea izan ziren, besteak beste.

Haurren eskaerak ere barne

Bestalde, eskoletan ere lurralde antolamenduaren inguruko dinamika bat egin zen eta 11 eta 17 urte bitarteko 246 ikaslek aurretik azaldutako ekintza estrategiko bati buruzko proposamenak egin zituzten.

Azken hauen artean aparkaleku gutxiago izatea, iturriz osatutako jolasteko gune bat edota ikuspen gutxiago guneak ekiditea izan ziren, besteak beste.

Ekimen honen helburua, gazteek hiria nola ikusi eta interpretatzen duten, zein neurritan ezagutzen duten eta espazio publikoan zer bilatzen duten jakitea izan zen.

Hurrengo urratsak

Hurrengo pausoa "legeak dioen moduan prozesu honetatik ateratako ondorioak eta argudiatzeak aztertu eta gero, teknikariek erantzun beharko dituzte", dio Izquierdok. Hala, proposamenak bidezkoak izanez gero dokumentua aldatu eta moldatu beharko dute eta beste batzuei ezezkoa eman. Behin dokumentu tekniko berria osatuta, berriro ere herritarrei aurkeztuko zaie eta argudiatzeak jartzeko hilabete-ko epea izango dute. Laugarren fasea behin-behineko onestea izango da eta azkena, Udalak behin betiko onestea.

Nahiz eta zehazki noiz bukatuko den ez jakin, Ana Izquierdoren us-tez 2015. urtean daiteke.

Urduña



Urduñako adinekoen egoitza Argazkia: Aiaraldea.com

Adinekoen egoitzan lau plaza gehiago jarriko dituzte

ERREDAKZIOA | Maddi Alegria Respaldiza

Urduñako adinekoen egoitzari hilerio 9.000 euro emango dizkio Bizkaiko Aldundiak. Apirilaren 1etik aurrera jasoko dute dirua, guztira 1.100.000 euro. Era honetan, lau pertsona gehiago zaintzeko aukera eskainiko du egoitzak. Egun, 56 plaza ditu, horietatik 36-ren gastuak Diputazioak ordaintzen dituelarik.

Bestalde, Urduñako Arkupea S.L. enpresak deialdia egin du erizaintza eta geriatría laguntzaile, txanda laguntzaile, zaindaria eta garbiketara langile postuen lan poltsak osatzeko. Lan poltsa hauek Urduñako Egoitzan baijengatik, oporraldien-gatik edota denboraldi baterako baimenengatik sor daitezkeen beharrak asetzeko erabiliko dira.

Hautagaien sailkapena merezimendu lehiaketa bidez egingo da. Azaldu dutenez, erizaintza laguntzaile eta txanda laguntzaile postuetarako beharrezkoa da, gutxie-

nez, erizaintza laguntzaile teknika-ri titulua edo honen balioak dena izatea. Zaindaria eta garbitzaile postuetarako beharrezkoa den formazio minimoa, aldi, eskola ziurtagiria izatea da.

Eskabideak aurkezteko epea urtarrilaren 7an hasi eta 31n bukatuko da, eta hau egiteko beharrezkoa izango da honako hauek aurkeztea: NAN, pasaporte edo gidabaimenaren fotokopia, Curriculum Vitae, lan-bizitza, egindako lana justifikatzen duen denboraldi eta funtzioen ziurtagiria edo lan kontratua, hautagai izateko baldintzak betetzen direnaren aitortza erantzulea, eta azkenik, baldintzak betetzen direla eta baloratu beharreko meritua frogatzen dituzten ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua.

Eskabideak Urduñako Arkupea S.L. enpresaren bulegoetan aurkeztu behar dira.

Aldaiko gasolindegia lekuz mugitzeko hiru proposamen aztertzen ari da udala

ERREDAKZIOA

Herriko hirigintza antolatze-ko plan orokorraren barruan Aldaiko gasolindegia lekuz aldatzeko hiru proposamen agertu dira. 2009tik ari da udala zerbitzuaren kokapena aztertzen. Aurreratu dutenez, errepide nagusien saretik gertu jarri nahi dute, etxebizitza eremu-tatik aldentzeko.

Izan ere, Amurrio inguruetan gaur egun bi gasolindegia daude: herri erdikoa -Aldai kalean dagoe-

na- eta Lezamakoa. Aukeren artean atera diren lekuak Saerin jate-arearen inguruko bi eremu eta Zabaleko biribilgunea dira. Hau da, Amurriotik Laudiora ateratzeko dagoen azken biribilgunea.

Gasolindegia geroa

Trantsizioa egiten den bitartean, baina, ez dituzte lanpostuak kolokan jarriko. Erabaki irmoa izan arte zabalik mantentzeko apustua egin-

go dute. Gero, gasolindegiko langilekin akordio batera iristen saiatuko dira, zerbitzuak sortzen dituen lanpostuak mantendu nahi dituztelako.

Gaur egun gasolindegia kokatuta dagoen tokian zer egin ere zehaztu dute: Dionisio Aldama eta Aldai kaleak lotuko dituen biribilgunea bat.

Amurrioko hirigintza antolatze-ko plan orokorra parte hartze prozesu baten bidez egiten ari da udala.

Kalitatezko Q saria jaso du Antzinako Andre Maria ikastetxeak

Kudeaketari dagokion kalitatearen Euskal Saria jaso du Antzinako Andre Maria ikastetxeak. 2013an, guztira, 14 erakunde jaso dute aitortza. Euskalduna jauregian egin zen sari banaketan 1.500 lagunek hartu zuten parte. Horien artean, besteak beste, Karlos Arranz Urduñako alkatea edo Iñigo Urkullu EAeko Lehendakaria. Gaur egun, Urduñako ikastetxeak haurtzaindegitik batxilergora arteko ikasketak eskaintzen ditu.

Ivan Fandiño toreatzaile urduñarrari San Isidro saria eman diote

Ivan Fandiño Urduñako toreatzaileak San Isidro saria jaso du Madrilan.

Fandiñok adierazi duenez, asko poztu da San Isidroko ferian parte hartu duen lehen aldia izan delako.

Uneotan Venezuelan dago aiaraldearra, San Kristobal hirian Enrique Ponce ordezkatzeko. Aurki, Kolonbiara joango da.

Twitter kontuan azaldu duenez, bolada bat emango du Amerika aldean ikuskizunak eskaintzen.

_herriz herri

Laudio

Udalbatzak ez du onartu jaien antolakuntza herriko eragileen esku uzteko proposamena



Batzorde Paritarioak antolatuko ditu herriko jaiak Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA

Laudioko udalbatzak uko egin dio herriko festak jai batzorde batek kudeatzeko proposamenari. Ondorioz, Batzorde Paritarioaren esku geratuko da antolaketa.

Astelehenean egin zen Laudioko udalbatzan mozioa aurkeztu zuen jaietako asanbladak, festak gainbeheran daudela irizita. Hasieran

abenduko udalbatzara eramatekoak ziren eskaera, baina talde politikoekin banan-banan biltzean jaso zituzten ekarpenak interesgarriak zirela-eta, urtarrilera atzeratzea erabaki zuten. Jaietako asanbladak eskatutako jai ereduaren alde Omniak bakarrik egin zuen; PPK, Bilduk eta PSEk abstentzioa

bozkatu zuten, eta EAJk kontra. Alderdi politikoei bi mozio alternatibo eraman zituzten: PSEk bat eta EAJ-Bildu taldeek bestea. Sozialistek, ordea, jaietako asanbladaren mozioa entzun ondotik haiena erretiratu egin zuten, festen esku-mena elkarrean batzorde kolegiatu baten esku uzteko eskatuz. Jaietako asanbladako mozioa ez zenez aterra, EAJ-Bildurena bozkatu zen, Batzorde Paritarioaren defentsa egin duena. Koldo Zabalak eta Milder Basterrak azaldu zuten, herritarrek bultzatutako jai eredia sustatzeko eragile sozial, kultural eta politikoez osatutako gunea da onena, ordezkari politikoak barne. Hortaz, programazioa prestatzeaz lantalde bat arduratuko da, udal teknikariaren laguntza jasoko duena. Aurreratu dutenez, denborarekin aurkeztuko zaio egitasmoa. Jaietako asanbladari, ondoren Batzorde Paritarioak onartu edo baztertu dezan.

Duela hiru urte aldatu zuten jaien eredia Laudio. Egungo sistemak hiru gune ditu: lan batzordea, jaietako asanblada eta batzorde paritarioa. Horrez gain, ordezkari

politikoek batzorde informatiboak egin dituzte.

Lan batzorde txikia kultur eragileek, jaietako zinegotziak eta teknikariak osatzen dute. Astero elkartzen da. Lantzen diren gaiak asanblada irekira eramaten dituzte, zeinetan nahi duen orok har dezakeen parte. Finean, proposamenei aurrera edo atzera egitea ahalbidetzen du asanbladak, baina ez da erabakitzailea. Bai, ordea, batzorde paritarioa. Azken horretan zarpina ordezkari politiko eta sozial elkartzen dira. "Teorian bertan hartzen dira behin betiko erabakiak, baina batzorde paritario hori legaliki ez da existitzen, ez dago araututa", dio Mikel Ayllon bertako kideak. Egoera horren aurrean jaietako asanbladan festak antolatzeko eredia aldatzeko proposamena egitea erabaki zen. Alegia, udalari asanbladak erabakitze eskumenaz eskatu eta jai batzorde batek antolatzea; Laudioko auzoetako jaietan egin den bezala. Jaietako asanbladak festetako eredia ez dela baliagarria esan du. Hortaz, batzorde paritarioan parte hartu edo ez kolokan egon liteke.

"SOS Laudioko Lamuza Parkea" plataforma sortu dute

ERREDAKZIOA | | Aitor Aspuru Saez

Musika Etxean gertatutako erorketen ostean eta Lamuza Parkeko ondarearen degradazioaren ondorioz SOS Laudioko Lamuza Parkea plataforma sortu dute.

Asteartean egin zuten bigarren bilera, eta sentsibiltate politiko ezberdineko jende ugari parte hartu zuen. Plataformaren oinarriak zehazteaz gain, mobilizazioa prestatu dute.

Otsailaren 6an, martxa

Protesta otsailaren 6an, ostegunez, izango da Lamuza Parkean. Bertatik aterako da martxa.

Ekimena 18:30ean hasi eta 19:00etan bukatuko da Herriko Plazan. Mobilizazioa egin eta gero beste egitasmoak jarri nahi dituzte abian; jardunaldi batzuk parkeko ondare historiko eta botanikoa zabaltzeko herritarren artean eta sinadura bilketa fisikoa. Izan ere, orain arte change.org plataformaren bidez sinadura bilketa digitala egin dute. Atzo arte, guztira, 915 atxikimendu bildu zituzten sarean.

Hiru eskaera nagusi

SOS Laudioko Lamuza Parkea hiru ideia nagusien inguruan sortu dute.

Arabako Foru Aldundiari egingako lehenengo eskaera, Lamuza Parkearen Plan Berezian jasotako larrialdiko esku-hartzea beharlagauzatzeara, eraikinak erori ez daitezen.

Bigarrena, parkeko ondare historikoa, bereziki Musika Etxea eta Kasinoa, botako ez direla bermatzea da. Horretaz gain, bere mantenuan pausoak emateko ere eskatuko dute.

Azkenik, parkeko ondare historikoa Laudioko herritarren erabilerarako izatea exijituko du plataformak, bere behar soziokulturallak asetzeko.

Pasa den astean Lamuza parkea bisitatzen egon ziren Arabako Foru Aldundiko teknikariak. Javier de Andres diputatuak eraikinak mantenduko dituela bermatu du. Natxo Urkixoren arabera, ordea, ez dago oraindik proposamen finkorik.

Info+: Bideoa: Natxo Urkixo alkatea Javier de Andresen bisitaren harira



Amagoia Elezkano hiltzeagatik 25 urteko zigorra eskatu du fiskalak

ERREDAKZIOA

Indarkeria matxistaren ondorioz hil zuten maiatzaren 23an Amagoia Lazkano orozkoarra, Laudioko etxean. Fiskalak 25 urteko espetxe zigorra eskatu du Francisco Javier M.N hiltzailearentzat.

Fiskalaren arabera 42 kolpe eman zizkion Elezkanori, eta labana erabili zuela uste du. Erahilketak goizaldean izan zela ere zehaztu dute, "Amagoia lotan zegoela aprobetxatuz". Espetxe zigorrak gain Ministerioak eskatu du 302.000 eurotako indemnizazioa ordaintzea semeari. Elezkanoren gurasoei, aldiz, 200.000 euro eman behariko dizkio hiltzaileak. Horretaz gain, sententzia ateratzen denetik 30 urte pasa arte ezingo du Orozkora joan, ezta Elezkanoren familiarekin komunikatu ere. Epaiketaren data oraindik zehaztu gabe dago. Francisco Javier M, ordea, Zaballako espetxean preso dago erruduna delakoan maiatzaren 25etik.



Abasto plaza konpontzeko lanak hasi dira Argazkia: Aiaraldea.com

Abasto plaza eta azoka, oinezkoentzako gune

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Laudioko Abasto plaza eta bere ingurunea erreformatzeko obrak hasi ditu udalak. Urteetan zehar merkatarik zein erabiltzaileek egingandako aldarrikapena izan da plaza-

ren hobetzearena. Zabalaren arabera. Hiru izango dira egingo diren hobekuntzak. Alde batetik, itogin eta hezetasunen arazoa konpontzeari ekingo zaio. Horretarako,

plazaren goiko parteko baldosak altxatuko direla jakinarazi du Koldo Zabalak, "azpian asfalto-oihal bat jartzeko". Plazaren beheko parteko sabaia eta paretak ere moldatzen hasi dira. 50.000 euroko kostua izango du obrak. Zabalak gaineratu du azpiegitura elektrikoan ere egingo dituztela konponketak, plazaren argiztapena hobetzeko.

Behin paretak konponduta, mural bat margotzea da asmoa. Iragan uztailan muralismo tailerra antolatu duen enpresa berari esleitu zaio irudia egitearen lana eta 19.300 euroko aurrekontua izango dute horretarako. Hirugarren hobekuntza Abasto plaza oinezkoentzako gune bilakatzea izango da. Asfalto berria jarriko da eta hosto batzuen irudiekin apainduko da gero.

Obrak egin aurretik merkatariekin batzartu direla azpimarratu du Zabalak. "Bazegoen plaza hobetzera bideratutako proiektu bat, milioi eta erdi euroko aurrekontuarekin. Baina gero gaineratu du ez dela posible gaur egun diru kopuru hori proiektu horretarako bideratzea". Hala, aurreikusitako obrerarako 85.272 euro erabiliko dira.

_herriz herri

Arrankudiaga-Zollo

Truke azoka antolatu du iganderako Gizarte Etxeak

ERREDAKZIOA | Markel Iturrizar

Asteburu honetan egingo da Arrankudiaga-Zollon Truke Azoka. Truke azokak gauza batzuk beste gauza batzuentatik aldatzeko aukera eskainiko du. Baita jabeak ipinitako prezioan erostekoa ere.

"Ekarri behar ez duzuna, behar duzuna eraman" izango da ekimenaren leloa.

"Etxean lekua okupatu baino egiten ez duten traste horiek, erabiltzen ez ditugun jostailu, liburu, musika disko edota CDak, aspaldiko tresna horiek aldatu eta eskaini egun interesatu ahal zaizkizun gauzengatik", adierazi dute antolatzaileek. 11:30ean hasiko da ekimena eta igande goiz osoa iraungo du.

Gazte Burrenbada

Larunbatean aldiz, Gazte Burrenbada antolatu du Ernaik. Es-

kualdeko Gazte Egunen antzekoa izango da: "Hau da, bai herriko eta baita eskualdeko gazteak elkartu eta herri giroa bultzatu nahi duen arratsalde eta gauerako egitaraua".

Ekitaldi ugari prestatu dituzte. 17:00etatik aurrera gazte olinpiadak izango dira. 18:30ak aldera, trikipoteoa egingo dute plaza inguruko tabernetan zehar.

Gauean, aldiz, musika jaialdia egingo dute. 20:30etatik aurrera emango zaio hasiera gauari Aiaraldeko Uluka taldearen kantaldiarekin. Ondoren, Ugaoko Atxurkada eta Nodo taldeek joko dute. Eta, herriko A Gantxo y Kutxillo taldeak. Eta azkenik, Landazuri Bass-Foundation eta DJ Gorka I. izango dira. Kontzertu guztiak Iberlanda futbol zelaiaren aldamenean izango dira.

Aiara

Ikastaro berrietan izena emateko epea zabaldu du udalak

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

Aiarako Udalak 2014ko udal kurtsotara matrikulatzeko epe berri ireki du libre dauden plazak betetzeko asmoz. Eskaintza zabala aurkeztu dute aurten: Yoga, dantza ikastaroak, altzarien zaharberitze tailerra, puntu lanak eta gurpil gaineko patinajea. Otsailak 3 arte egongo da izena emateko epea.

Ikastaroak otsailaren bigarren astean hasi eta ekainean bukatuko dira. Trebakuntza saioak Arespalditza, Luiandon eta Llantenonegino dira. Izena ematea oso erraza da. Udaletxean edo Luiandoko bulegoan zein www.aiarudala.com web orrian eskuratu daitekeen inskripzio orria bete behar da. Ondoren, jaso den lekuan edo info@aiarakoudala.com helbide elektronikoan entregatu behar da.

Argitu dutenez, izen ematearen ordena jarraituz beteko dira ikastaroen zerrendak. Langabetu eta ikasleentzako prezio murriztua egongo da.

Argiak eta itzalak Orozkoko 2011ko udal kontuen epaian

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Orozkoko Udalaren 2011ko kontuei buruzko txostena argitaratu du. Testuan bere jarduerak araudia zuzentasunez bete duela adierazi du. Alabaina, salbuespen batzuk aipatu ditu. Adibidez, udal langileei defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak ez zaizkiela ezarri.

Zubiaur Eraikuntzak jomugan

Zubiaur Eraikuntzak, SA sozietate publikoari dagokionez, epaitegiak aldeko iritzia du, nahiz ez betetze bat jaso den eta hiru doiketa egin dituen. Epaitegiak azpimarratu du zinegotzi eta kontseilariak ordaindutako 39.780 eta 1.983 euroko dietak ez zirela Bizkaiko Foru Aldundian aitortu. Gainera, presentzia bermatu gabe kobratu ziren.

Bestalde, Epaitegiak dio Zubiaur Eraikuntzak entitateko lehendakariak -alkate ohiak- 1.030 euro jaso zituela soldata gisa hileroko, eta hori arauen aurkako dela.

Okondo

IBI zerga zatika sei kuotatan ordaintzeko aukera onartu du udalak, egoera ekonomiko txarrean daudenak laguntzeko

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainketa atzeratzeko aukera eskaintzea erabaki berri du Okondoko Udalak bertan ordezkarrizta duten alderdi guztien adostasunarekin.

Bilduren ekimenez bideratutako OHZren ordenantza berriak sei hilabete epea eskainiko die borondatezko epean zergaren kitapen osoari aurre egin ezinik aurkitzen diren herritarrei. "Epe boluntarioan aurkeztu beharko da or-

dainketa epea luzatzeko eskaera eta gizarte teknikariaren txostena ere beharrezkoa izango da", azpimarratu du Sergio Tato alkateak ordenantza berria aurkeztean. "Ordaindu ezin duenari errekarria ez ipintzea lortu nahi dugu", azaldu du gobernuburuak.

Izan ere, Arabako Foru Aldundiak Katastroan jasotzen dituen lurzoru eta etxebizitzaren balioak abiatzen den OHZren ordainketa, sei hilabetez luzatu ahal izango da.

Sei kuota

Orain arte epe barruan egin beharreko ohiko ordainketa baxarra, hileroko 6 kuotatan banatu ahal izango dute hala eskatzen duten herritarrek aurrerantzean.

Ekimenaren berri galdetuta jende gutxi jorratzen duela gaur egun bide hori dio; "baina salbuespeneko egoerabatean ordaindu ezin dutenek, egoera pertsonala edo ekonomikoa aldatu delako, luzapena eska dezakete orain".





ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA · OTSAILAK 1
 Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa

ARRASATE · OTSAILAK 8
 Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · OTSAILAK 8
 Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · OTSAILAK 13
 Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO · OTSAILAK 15
 Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORRIATZA · OTSAILAK 8
 Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA · OTSAILAK 8
 Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 13
 Osteguna, 18:00 / Auditoriuma

OTORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK

Ikasitakoarekin profesioaren nazioarteko ikuspuntua bereganatzen ari naiz.

Yao Yao,
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak, 2. maila.



_sozioekonomia



Mikel
Cormenzana
EHNE sindikatua

—Argia

Lankidetzaren VS lehiakortasuna

aster Europan sartu ginenen 30. Urtemuga izango da, Europar Nekazaritza Politikan aplikazioaren urtemuga. Urte guzti hauetan, zoritxarrez Euskal Herriko baserriarren %70 desagertu egin dira. Eta beraiekin batera kultura, hazien, fruta-arbolen, animalien, elikagaien, ekoizpenen jakinduri eta kultur mordoa. Desagerpen hau, argi eta garbi, instituzio publikoengandik bultzatua eta zuzendua izan da. Mezu nagusia lehiakortasunarena izan da, denok entzun dugu inoiz, diputazio eta gobernu ezberdinetik, txiki asko desagertu egin behar zirela handi lehiakor gutxi batzuk gelditu ahal izateko. Eta noski, horretarako "modernizazioaren" baliabideak mahai gainean jarri zituzten. Hau da, baserriak handitzeko diru laguntzak. Baserri asko desagertu eta erraldoi gutxi batzuk lortu ondoren, indibidualismoaren hazia herri askoren sare sozialak txikitu ditu. Erraldoi gutxi horiek ere ez direla lehiakorrik konturatzen gara, eta gogor egin duten txiki batzuk, betiko ekoizteko sistemak mantendu dituztenak, era horietan hasten diren gazte asko eta askok, etorkizun argiago bat daukatela. Horien artean mantentzen eta berriki sortzen ari diren elkarlan sare horiek oinarritzakoak dira, ez bakarrik beraien ekonomia bermatzeko baizik eta herri sareak sendo mantentzeko ere. Paradoxa handia, hainbeste aldatu, betiko lankidetzaren etorkizun gehien daukan sistema dela ikasteko.

Aiala Vidrioko langileen eta enpresaren arteko negoziaketa abian, greba egin eta gero



Langileen aldetik erabateko jarraipena izan du 32 orduko grebak, sindikatuen esanetan Argazkia: Gartzzen Garaio

ERREDAKZIOA

32 orduko lanuztea egin dute Aiala Vidrio enpresako langileek aste honetan. Igandean 22:00etan hasi zuten protesta, hitzarmen kolektibo duina aldarrikatzeko asmoarekin.

Berez, hitzarmena negoziatzeko langileen helburua azkenengo lan erreformaren ondorioak baliogabetzea da. Horregatik, oinarri gisa, zuzendaritzari eskatu zioten urrian erreformak ematen dizkion tresnei uko egitea.

Baiezkoa jaso ez zuten grebari ekin zioten igandean. Manu Manso ELAko ordezkariaren aburuz, hiru hilabete eman dituzte enpresare-

kin negoziaketetan: "Langileen hitzarmen kolektiboan lan erreforma blokeatzeko klausulak jarri ditugu, baina ez dute onartu. Ez zaigu greba egitea beste irtenbiderik geratu". Hobekuntzarik ez egotekotan otsailaren 3tik aurrera greba mugagabea egitekoak ziren: lau orduko lanuzte partzialak txanda guztietan. Alabaina, negoziaketa abiatzeko gutxieneko baldintzak onartu dituztenez gaur erabakiko dute langileen asanbladan greba mugagabearen planteamendua bertan behera utziedo ez. Sindikatuen arabera, egoera aldatu denez litekeena da bertan behera uztea.

Asteartean izan zuten enpresako zuzendaritzarekin bilera, eta gutxi gorabehera langileen baldintzak onartu zituztenez negoziatzeari ekin diote.

LAB sindikatuak aurrerapausotzat jo du astearteko bilera: "Erredekzio aldetik bada konforme ez gauden puntu bat: lan orduen malgutasunari dagokion produktzioa areagotzeko. Akordiora heltzeko orraztu egin behar da orain". Horretarako enpresaren akordioari ekarpenak egingo dizkio: "Gaurko asanbladarako prest egotea espero dugu". Bertan erabakiko dute borrokaekin nola jarraitu. Langileen

eskaeren artean ultraktibitatearekiko kezka dago, hitzarmen berria sinatu arte orain arteko baldintzeekin jarraitzea nahi dute, hain zuzen ere. Bestalde, lan hitzarmena aplikatzeko aldeakartasuna ezin dela bidea izan adierazi dute; akordiora iristeko beharra dagoela, alegia.

Negoziaketa fasean enpresa eta langileen artean akordiorik ez balego lan gatazkak konpontzeko prozeduraren PROFICCE organoa baliatuko lukete. LABek salatu duenez, enpresak luzatutako proposamenean ez da EAE mailan sortu den "arbitro organoa" ageri.

Egoera ekonomiko onean

Aiala Vidrio eskualdean dagoen lantegi garrantzitsuenetakoa da, 391 pertsoneri lana ematen baitie. Vidrala taldeari dago lotuta eta Laudion enpresak dituen bulegotan beste 129 beharginek egiten dute lan. Mansok azaldu duenez enpresaren egoera ekonomikoa "zoragarria" da, krisiaren gainetik igaro da eta urtero irabaziak izan ditu. Horregatik, batetik, lan erreformaren inguruan eztabaidatu nahi ez dutela salatu dute. Eta, bestetik, soldata murriztu eta lan orduak areagotu nahi dizkietela zabaldu.

Asier Barruetabeña LABeko ordezkaria ere oso pozik azaldu da: "Hasieran jendea oso urduri zegoen, soldatak, familiak eta ogibidea kolokan zeudelako. Oso ondo portatu da jendea".

Info + Bideoa: Aiala Vidrio enpresan langileek egindako 32 orduko greba.



Sindikatuak helegitea aurkeztuko dute Guardianen lan espedientearen aurka

ERREDAKZIOA

600 langilerentzat lan erregulazio espedientearen onartu du Guardian enpresak. Sindikatuen arabera, langile osoari zuzenduta bada ere produktioaren beharginei eragiten die batez ere, "arduradunak kanpo geratu dira". ELAK jakinarazi duenez, helegitea aurkeztu du.

Izan ere, enpresak abenduaren erdialdean aurkeztu zuen, langile gehienak oporretan daudela probestuz. "Hori espedienteen negoziaketak saihesteko formula da", erantsi du Agapito Valle LABeko ordezkariak. Gaineratu duenez, iazko eta aurtengo aurreikuspenetan ez dira egiazko datuak aget-

ri: "Iaz enpresak produktio aldetik hobera egingo zuela esanzuen, berraz ez dago espedientearen aplikatzeko arrazoirik".

Urtarrilaren hasieran sartu zen indarrean langileen lan espedientearen iraila arte iraungo du. "Enpresak legeak agindutako gainbegiratze bat egiteko baliatu du, produktioaren etenaldia eskatzen zuten gauzak egiteko aprobetxatzen ari dira espedientearen". Langileen aldetik ez da mobilizaziorik planteatu, legearen baitan aplikatu baitute eta zaila delako planteamendua deuseztatzea: "Ez dira beharrezko baldintzak egon".

C.D Laudioko jokalariek salatu dute bost hilabeteetan ez dutela kobratu

ERREDAKZIOA

Laudio futbol klubeko jokalariek bost hilabete daramate kobratu gabe. Hala salatu zuten larunbatean Ellakurin Amorebietaren aurka jokaturako partiduan.

Azaroaren amaieran Arabako Foru Aldundiak klubari zor zion zatia ordaindu zion, 155.000 euro. Gaizka Bergarajokolariaren arabera, baina, ez dute oraindik soldatarik jaso: "Jendea kezkatuta dago, entrenamenduak, gasolina... diru sarrerak gabe ezin dugu egin". Laudio Futbol Klubak urtea amaitu baino lehenago ordainduko zela esan zuten: "Pilota handitzen ari da eta mahai gainean kolpe bat ematea

erabaki dugu protestaren bidez". Klubarekiko fideltasunagatik, ordea, lan berdina egiten jarraitzen dute. Bergararen iritziz, klubak pausoren bat eman beharko luke: "Azalpena ematea garrantzitsua izango da. Gu nekatuta gaude, denbora asko da kobratu gabe. Denok ez dugu futbolaz gain lanik egiten". Aurrera begira ez dute protestarik aurreikusitako. Klubak, momentuz, ez du adierazpenik egin.

Info + Audioa: Gaizka Bergara CD Laudio klubeko jokalaria egindako elkarrizketa.



_jendarte

Kulturartekotasuna sustatzeko "Bizilagunak etxera" eguna egingo dute Laudion



Euskal Herriko hainbat lekutan egin da ekimen bera, besteak beste, Getxon edo Zarautzen. Argazkia: Getxoko udala

ERREDAKZIOA | | Aitor Martinez Ibarrola

Bizilagunak etxera eguna ospatuko dute otsailaren 15 eta 16an Laudion. Helburua kultur artekotasuna lantzea da. Zehazki, etorri berrien eta bertan jaiotakoen artean harremana lantzea bilatzen du Kulturarteko Zubiak elkarteak.

Familiak nahiz norbanakoek parte har dezakete ekimen horretan, batak besteari etxean bazkaltzeko gonbidapen bat helaraziz. Ondoren, gonbidatuaren etxean beste bazkari bat egiten da.

Izen ematea urtarrilaren 15ean hasi zuten, eta otsaila arte egongo da apuntatzeko aukera. Horretarako, kulturartekozubiak@gmail.com helbidera mezu bat bidali baino ez da egin behar. Batetik, zenbat pertsonentzat sukaldatzeko prest dagoen zehaztu beharko du interesatuak. Eta, bestetik, otsailaren 15 edo 16 egunen artean bazkaria egiteko hobekien datorkien eguna. Kudeaketa egiteaz Kulturarteko Zubiak elkarte arduratuko da.

Laudion, 40 kulturatik gora

Une honetan Laudion 40 kultura baino gehiago daude. Horregatik, Laudion Bizi Gara ekimena abiatu zuten ia zoko maiatzean.

Orain arte ekitaldi desberdinak antolatu dituzte. Besteak beste, herri desberdinen folklore eta gastronomia erakusketa, "dantza-kafe-te-txokolate" jaia edota Lanpedusan gertatutako emigranteen hilketa salatzeako kontzentrazioa aurrki daitezke horien artean.

Orokorrean, harrera ona izan da. Momentuz, 10-11 pertsonak osatzen dute taldea, baina helburuak konpartitzen dituen orori irekia dago. Etorri berriak eta bertan jaiotakoen artean elkarlanean, naturalki hala suertatu delako.

Arduren artean, herritarren arteko erlazio gertuagoak bilatze aldera, aldaketara eta parte-hartze bideratutako lan egiteko molde berrien iradokizuna dute. Hartarako, arazoak ezagutzeko eta aurre egiteko analisiarako eta diagnosi sozialerako metodologia bat proposatzen da.

Azaldu dutenez, kulturen arteko elkarbizitza gestionatzea da helburu nagusia. Izan ere, gizarte homogeneoetan agerikoak diren gatazkak kultura aniztasun handiko espazioetan larritu egiten direla uste dute.

Elkarbizitza normalizatu bat lortzeko elkarren arteko ezagutza ezinbestekotzat du Laudion Bizi Gara ekimenak. Horren bidez estereotipoak, susmoak eta ikuspengidistorsionatuak ekiditea lortzen da haien aburuz. Hori lortzeko, bertako kultura eta etorri berrien kultura bi norabideetako erlazio horizontalen bidez harremanetan jarri behar direla deritzote.

Ekintzen beharra

Kultura desberdinekin bizitzea zaila dela iritzita, herriak horien moduko ekintzak behar dituztela

Ekimenak beste kultura bateko familia bat bazkaltzeko etxera gonbidatzean datza, bisita eta otordua konpromisoa hartuta.

uste dute, ikasten goazen heinean zenbait muga hausten direlako. Ekitaldi horien antolakuntzaren ondorioz, Laudion Bizi Gara herrian dauden kultura desberdinekin kontaktua indartu zuen. Lan horren jarraitkortasunetik jaio da Kulturarteko Zubiak elkarteak.

Talde hori izango da kulturartekotasunaren lanketaz arduratuko dena. Hala ere, Laudion Bizi Gara ekimenean parte hartzen jarraituko dutela adierazi dute.

Herritar etorri berriak eta ordezkatzeko dituzten herriak ikusgarri egitea da elkarte berriaren helburu nagusia. Zentzu horretan, Laudion Bizi Gara egindako irakurketa berdina egiten du, eta kulturen arteko harremanak sendotu nahi ditu, elkarren artean ezagutu daitezten. Izan ere, kultura aniztasuna aberastasuna dela uste dute.

Momentu honetan taldean gutxienez hamar herri dute ordezkaria. Hala ere, osatzen jarraitzeko nahia erakutsi dute. Bitartean, ekin-tza desberdinak prestatzen ari dira.

Aurrera begirako erronkak

Kultuarterko Zubiak elkarteak kideek etorkizuna herritarren eskutik dagoela uste dute. Zentzu horretan, arazoak herritarren artean konpontzeko gonbitea luzatu dute, "beste inork ez duelako gure ordezkari". Azken finean, herritar konprometituz erabakitako taldea da.

Aurrera begira, anitzak dira landu nahi dituzten gaiak. Hala ere, indarren mugaz jakitun, lehentasunak finkatu beharko dituzte. Gaur egun, kalitatezko Osasun Publiko-rako eskubidearen gaia lantzearen alde agertzen dira. Izan ere, arriskuan dagoela uste dute eta geroz eta jende gehiagori eragiten diola. Zentzu horretan, laster Laudion ekintza publikoren bat burutuko dutela aurreratu dute.

Eskualdeko beste herrietan ere ari dira hedatzen kulturartekotasuna lantzeko ekimenak.

Urduñan, esaterako, herrialde ezberdinetako sukaldaritza ezagutzeko tailerrak egin zituzten udazkenean zehar. Bertan, kultura ezberdinetako jakiez gain Urduñan bizi diren beste herrialdeetako pertsonen esperientziak ezagutzeko aukera eskaini zuen Adi emakume taldeak. Amurrión, Planeten mundua jaia egin zuten. Eta, Arrankudiagan bertan bizi diren kulturekin "Herri bat, hamaika jatorri" festa.

Info • Bideoa: Laudion Bizi Gara eguna
Web: Arrankudiaganeko "Herri bat, hamaika jatorri" jaialdia.



Irati
Mendiguren Cosgaya
HEZITZAILEA

_Hankamotz

Sofatik altxatzeko ordua da

Hoge eta hamaika urte, diplomatura bat, lizentziatura bat, hamaika ikastaro, eleaniztasuna eta lanerako prestutasuna. Zer gehiago behar du gazte batek, bada, bizitza independente bati ekiteko?

Langabezi gordinak, etxebizitza alokairu neurrigabeak eta bizi baldintza prekarioek eraman gaituzte eskualde honetako gazte-helduak ere gurasoen gerizpean bizirautea. Gazte-helduak diot, gure gurasook ordurako bazituztelako bi seme-alaba, zer jan eta non lo egin.

Gaur egun independentea den gaztea ez da, berez, independentea. Etxebizitza propioa duen gazteak 30 eta 50 urtetarako hipoteka baten menpeko da, alokairua duenak bere hileko soldataren bi herenak batatz beste xahutzen ditu ordaintan, eta sobratzen zaionarekin des-elikatze aukera geratzen zaio. Hori gutxi balitz, lanpostutik lanpostura saltoka bizi da eta ezin du, nahita ere ez, familia bat sortzeko guraria bete.

Etorkizunik gabeko gazteak ei gara edo ezerezera kondenatu nahi gaituzte, bederen. Gero, jendarte eraikiko duen belaunaldi prestua eta freskoa gara eta, hala izanik ere, gazteon ihesaldiarekin egiten dugu topo egunero.

Eta guk gure herrian bizi nahi dugu, bailara honetan. Maite ditugu gure inguruak, gure jendea, gure kultura.

Duintasunez lan eta bizi nahi dugu. Asko eskatzea al da?

Sofatik altxatzeko ordua iritsi da.

Kintoak, tradizioaren metamorfosia

Otsaila eta martxoaren bitartean ospatuko dira Amurrio eta Urduñako kintoak. Foruen galeran dute jatorria, baina urteen poderioz asko aldatu dira bi ospakizunak.

ERREDAKZIOA |  Txabi Alvarado Bañares

1839. urteko abuztuan bukatu zen Lehen Gerra Karlista, eta hala hasi zen foruen deuseztapena. Baina foruen galera ez zen bera bakarrik etorri Hego Euskal Herrira, ospakizun bat ekarri baitzuen berarekin: Kintoen ospakizuna.

Izan ere, foruek herritarrek soldaduska egitetik salbuesten zituzten. Burgoseko emakumeak Miñano inguruko etxe batera joaten ziren haurdun zeudenean, Txomin Rodina historia zale urduñarraren arabera. Hala, bertan jaiotako haurrak ez ziren etorkizunean fusil bat hartzerik behar izango, foruen legediaren pean jaiotako zirelako. Baina estatutu juridiko horiek kenduta,

18 urte betetzen zuten gizonezko guztiak soldaduska egitera derrigortuak izan ziren. Horregatik hasi ziren ospatzen kintoak, armadan sartu baino lehen "aurpegia alaitzeko" jai moduan. Hori da festa horren jatorria, Rodinaren hitzetan. Urteak aurrera joan ahala ospakizun berria garatuz joan zen, eta frankismoaren garaipenare-

kin jende gehiago batu zen festara. "Ordura arte aberats batekin bati ordaindu ahal zion gerrara bere ordeztatu zedin", azaldu du historia zale urduñarrak. Frankorekin, baina, pribilegio horiek albo batera utzi ziren.

"Jai soil" bilakatzea

Ondo ezagutu du Rodinak Urduñako kintoen ospakizuna, bere kintatik 1971. urtean gaur egun arte. Derrigorrezko soldaduskaren deuseztapenak leku askotan jai hori ere albo batera uztea ekarri zuen. Baina Urduña eta Amurrio ez zen hala gertatu. Belaunaldiz belaunaldi mantendu da tradizioa.

"Amurrio eta Urduñan festa egiten jarraitu zuten audio bako bako txikiagoak zirelako eta errazagoa zelako adin bereko gazte guztiak elkar ezagutzea eta harremana mantentzea". Hala uste du Aketza Merino historialari amurriarrak. Luiaondo, Lezama eta Baranbiobezalako herri txikietan ere kintoak kantatzera ateratzen zirelakoan

dago Merino, baina ohitura hori zerbitzu militarra deuseztatu baino lehen galdu zela gaineratu du, "60ko edo 70ko hamarkadan".

Gaur egungo kintoen ospakizunak eta soldaduska indarrean zegoenean egiten zirenek ez dute zerikusirik, Rodinaren arabera. Aldaketa "erabatekoa" izan zela uste du historia zale urduñarrak. "Gaur egun dibertsio hutsa da, ez delako zerbitzu militarra egin behar, ez duzulako aditza eman behar kontzientzia objektore zarelako... ez duzulako ezer egin behar". Horrek kintoak "jai soil" bilakatzea ekarri du, Rodinaren hitzetan, "ez dute lehen zeukaten herri sentimendua".

Iritzi ezberdinekoa da Ainhoa Gutierrez. Bere kintakoei egokitu zaie aurtengo festa antolatzea, 18 urte beteko baitituzte. "Galdera ona orain ez gara soldaduskara joaten", hausnartu du Gutierrezek kintoak ospatzearen gaur egungo zentzuaren inguruan galdetuz. Gakoa "ilusioan" dagoela ondorioztatu du, 18 urte betetzearen ilusioan. "Heldutasunera sartzen garela beste era batean ospatu nahi dugu".

Antzeko iritzia du Jon Porresek. Amurrioko kintoen antolaketan sartua dago, eta azarotik dabil ostiralero kintako gainontzeko kideekin biltzen, Matias Landaburuko eraikinean. "18 urte betetzen dituzunean egiten duzun jai bat". Hala definitu ditu berak Amurrioko kintoak. Agate Deunaren bezperan izango dute Porres eta bere kintakoei ospakizunaren lehen txanpa: baserritarrez jantzita aterako dira, Amurrio inguruko lurraldeetatik abes-tera. Jai nagusia, baina, otsailaren 14rako dute gordea. Bertaratzera



Auzoz auzo etxe ezberdinetatik pasatzen dira Urduña eta Amurrioko kintoak jai antolatzeke di

Foruen galerarekin hasi zen kintoen ospakizuna egiten. Soldaduska deuseztatua egon arren festa egiten jarraitzen da urtero Urduñan eta Amurrioan.

animatzen den orori irekitako egitaraua prestatzen ari dira egun horretarako:

Arratsalde partean batukada bat egongo da eta gero kontzertuak.

Hori da Aiaraldean kintoen ospakizunak izan duten beste aldatu bat: festa herrietan geratzen dela. Lehen Abadiñon edo Tolosan bukatzen zen jai kintoak ospatzen zituen urduñar ororentzat, nahita ez. Baina jada ez dute halakorik egiten, Amurrioko enantzeko plangintzabaitute urduñakokintoei. Otsailaren 1ean aterako dira herriz herri abestu eta dirua eskatzera, eta festa egiteko martxoaren 8 arte itxarongo dute. Trikipoteoa, umeentzako jolasak... hainbat ekintza egingo dituzte egun horretan, kontzertuak barne.

Horiguzti hori antolatzea ez dabi eguneko kontua izan. "Irailean hasi ginen bilerak egiten, eta hor hasi ginen aurtengo kintoak antolatzen: zer egingo dugun, nola egingo dugun, nola aterako dugun dirua...", azaldu du Gutierrezek. Udaletxearekin ere kontaktuan jarri eta aurrera egin dute. Ostiralero biltzen dira orain, erabaki beharrekoak erabaki zein kantatu beharreko abestiak entseatzeko. "Oso abeslari onak" ez direla aitortu arren, "pixkanaka pixkanaka" aurrera doazela ziurtatu du Gutierrezek. Porres, bere aldetik, abestearen aferra "nahiko ondo" daramatela dio: "pixka bat gehiago entseatzeko baino ez zaigu falta".


Funtsean, aurreko belaunaldiek erabilitako eskema bera erabili dute aurtengo kintoak. Baina belaunaldi bakoitza ezberdina dela azpimarratu du Gutierrezek. "Guk beti



Txomin Rodina

1971ko kintoa eta historia zalea

"Gaur egun kintoak dibertsio hutsa dira, ez delako zerbitzu militarra egin behar"



Ainhoa Gutierrez

Aurtengo kintoa

"Kintoetan parte hartuz heldutasunera sartzen garela beste era batean ospatzea da gure asmoa"



Argazkia: aiaraaldea.com

pentsatu dugu: eta kintoak izango garenean zer egingo dugu?". Aurreko belaunaldiekiko egondako aldaketetako bat "krisi ekonomikoa" da. Hala ere, krisi ekonomikoaren aurrean horrelako ospakizunak behar direla gaineratu du, "elkarrekin egon eta jendearekin ospatzeko".

Eta kintoak bukatzean, zer? Urduña zein Amurrioko belaunaldi zaharrek urtero afari bat egiteko ohitura dute. Etorkizuneari euren ere berdin egitea espero du Gutierrezek, "ahal bada" betiere.

Auzoz auzo, eskean

Aldaketak aldaketa, badago gauza bat gaur egun arte mantendu den kintoen ospakizuneari: auzoz auzo eta etxez etxe abesten eta dirua joatearen ohitura. Eta aurrean ere hala egingo dute, ohiko ibilbideak jarraituta. Urduñan otsailaren 1ean aterako dira. Lau taldetan banatzeko asmoa dutela jakinarazi du Ainhoa Gutierrezek. Lehen taldea Arrastaria aldera joango da, Larruazabal aldera bigarrena eta Azkena Saratxora. Arratsaldean, aldez, batera arituko dira, Urduña osotik ateratzeko asmoa baitute. Amurrión, berriz, Agate Deunaren bezperan ateratzeko asmoa dutela jakinarazi du Jon Porresek. Zazpi talde egingo dituzte, San Jose, Izoria-San Anton, San Roke, Murga, Lezama, Saratxo eta Amurrión inguruetatik joateko.

Info * Argazki bilduma: 2012ko Amurrioko kintoen jaiak eta diru bilketa iruditan



Lehen emakumea, txistulari

Soldaduskaren jarraikortasuna kolokan zegoenean atera ziren kintoetan emakumeak lehenbizikoz. Parte hartzea irekitzeak eztabaida piztu zuen Urduñan. Festara atera zen lehen emakumea txistulari bakarria zelako onartu zuten.

"Ez zeukaten txistularirik eta niri eskatu zidaten jotzeko". Hala azaldu du Maitane Azkarragak kintoetan izan zuen papera, emakumeak oraindik ospakizuneari parte hartzen ez zuten garaian. Bera baino urte bat zaharragoak ziren mutilekin aterazen Azkarraga, euren ahotsei txistuarekin herri-zerrilaguntzera. Esperientzia hark oroitzapen onak ekartzen dizkio gogora. "Arrastaria joatea egokitu zitzaidan eta oso ondo pasatu nuen, primeran".

Laurogeita hamargarren hamarkadaren bukaera zen, derrigorrezko soldaduska bertan behera geratzeko zorian zegoen. Azkarragaren arabera, bere kintako gizonak bat bera ere ez zuten soldaduska egitera joan. Gauzak hala, kintoetan parte hartzearen ideia hasi zen garatzen Azkarragaren adineko emakumeengan. "Argi geneukan hurrengo urtean aterako ginela". Baina ez zen hala izan.

Istiluak

Hurrengo urtean "istilu asko" egon zirela oroitu du Azkarragak. Emakumeak kintoetan parte hartzearen aldekoen eta kontrakoaren artean izan ziren eztabaidak. "Jendea 20-25 urte inguru dituen hasten dabere kintakoei afari eta bazkariak egiten", azaldu du Azkarragak, "bainagure kintakoei ez genituen oso berandurarte egin, gure artean haserre jarraitzen genuelako".

Gaur egun ere, eztabaida kintako bazkari eta afari guztietan mahairatzen dela ziurtatu du Azkarragak; "Pandoraren kutxa ireki genuen".

Urte horretatik aurrera emakumeak jaietan parte hartzen hasi ziren, aurreko eztabaidaren zantzuak mantentzen ziren arren. "Mutil batzuk ez zuten gurekin atera nahi eta bakarrik atera ginen abestera", oroitu du Jasone Ariñok. Berea izan zen emakumeek gizonak bezala parte hartu zuten lehen belaunaldia, emakumezkoen lehen kinta. Eztabaida, gainera, ez zen horren latza izan. "Lau mutil ziren ezetz, ezetz eta ezetz ziotenak, baina beste berdin zitzairen emakumeek parte hartzea", oroitu du Ariñok.

Gizon eta emakumeen arteko banaketa goizean zehar soilik mantendu zela gaineratu du Saioa Oruetak, "gero egun osoa egon ginen oso ondo elkarrekin,

hiriak oso ondo onartu zuen".

Hurrengo urtean, desadostasunak jarraitu zuten arren, ez zen emakume eta gizonen arteko banaketarik egon. Dirua izan zen arazoia. "Guk bagenekien aurreko belaunaldiko emakumeak euren kabuz abesten joanda diru asko jaso zutela", aitortu du emakumezkoen bigarren kinta hartan egondako

Amaia Fernandezek. Hori jakinda, kinta misto baten aurka zeudenak konbentzitu zituzten, elkarrekin diru gehiago irabazi ahal zutelako. Banakajoanda, berriz, gizonen kintakoa galtzen bukatzen zuten.

Gauzak hala, kintoetan parte hartzea aurreko urtean baino "errazagoa" izan zen, Fernandezek arabera. Orduz geroztik emaku-

meei ez diote Urduñako kintoetan parte hartzeari utzi.

Eta Amurrión? Egon al zen antzeko polemikarik? "Ez dakit", ondorioztatu du Azkarragak, "oroitzen dut istilu hori ez zegoela Amurrión; baina ez dakit emakumeak jada parte hartzen zutelako edo eztabaida oraindik planteatu gabe zegoelako zen".

LAUDIO
ikastola

izan zirelako gara,
garelako izango dira

www.laudioikastola.net
94 672 67 37

Iritsi da San Blas eguna

Larunbatean izango da Laudioko San Blas azoka. Baserritarren eta artisauen produktuak, arraza autoktonoko oilarren erakusketa, zarpantzarrek, txistulariak, harri jasotzaileak... egongo dira. Goizetik iluntzera arteko egitaraua prestatu du San Blas Kukutxe elkarteak.



Txerria jaietako protagonista ere izaten da, irudian Laudioko San Blas egunean txerria erretzen Argazkia: Gartzen Garaio

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Larunbatean San Blas eguna ospatuko dute Laudion. San Blas Kukutxe elkarteak 20 urte daramatza azoka eta jai antolatzen. "Feriak ez du interes komertzialik, baserriko bizitza erakusteko sortu genuen", azaldu du Jesus Corredor elkarte-ko kideak.

Makina bat gosete arindu dituelako aukeratu zuten txerria protagonista gisa: "Antzinako arbasoei goseak kendu zielako merezi duen omenaldia egiteko hartu genuen ikur bezala".

Azoka antolatzeko 20-25 pertsona aritu dira aurrelanean. Egunean bertan, ordea, 50 bat aritzen dira laguntzen. Egun osoko egitaraua osatzen dutenez, baina, parte hartzea oso handia da: zarpantzarrek, txistulariak, dantzariak, abeslariak...

Txerriarekin batera soka izaten da nabarmentzen den elementua, bedeinkatuta dagoenez ezarria babesteko erosi eta ipintzen ditujendeak.

Aurtengo txerriak Terentzio VII. du izena. Handia eta izugarria izaten dela dio Corredorrek; "errifa eta pisaketarekin giro berezia sortzen da". Helduei ez ezik, haurrei ere urdaiazpikoa, txorizoa, solomoa... eta bestelako jakiak nondik ateratzen diren irakasten diete. Prozesu osoa jendaurrean egiten da: txerria bizirik dagoela ekartzen dute plazara, ondoren hiltegia erama-

ten dute eta ostean plazan erretzen dute. Garbitu eta tripak zabaldu eta gero, zintzilik jartzen dute apustuak egiten jarraitzeko. Izan ere, txerriaren gastuei aurre egin eta jai finantzatzeko aberearen pisu zehatza asmatzeko apustuak egiten dira. Hala, txerriaren pisaketan kilo zehatza asmatu edo gehien hurbiltzen direnek txerria jasotzen dute sari: "Apustuak euro bat balio du. Iaz 389 kilo izan zituen eta 13 pertsonak asmatu zuten".

Animalia laudion hezia izaten da. Lehen, Gastaka baserri-rik ekartzen zuten. Gaur egun, Osteko baserri-rik: "Herrian ez denean egon kanpoan erosi dugu, baina zaindu eta elikatu herrikoek".

Aurtengo ahemeretzigarren edizioa izango da. 1994an hasi ziren egiten, baina 1995ean ez zuten jairik egin: "Eguna antolatzeko pres-taketa egiteko hartu genuen urtea".

Egitarau oparoa

Arabako azokarik garrantzitsue-na da Laudiokoa, Corredorren ara-bera: "Goizetik iluntzera daude ekin-tzak".

Gaur 10:00etan aurkeztuko dute herriko plazan Terentzio VII. txerria. Bihar, ordu berean hasiko dira ekitaldiak. Izan ere, 10:00etatik aurre-ra egongo dira ikusgai Aldai plazan baserritarren eta artisauen pro-dukutuak, arraza autoktonodun oi-larren erakusketa, trontzalariak

eta harri jasotzaileak... Bi lehiaketa ere izango dira: gaztainondo-ekin-dako makilena eta txarri patena.

Pantxi Ibarra eta Jose Antoni Unzaga baserritarrei omenaldia 13:15ean egingo diete.

Azokatik harago, eguna alaitze-ko ez dira jarduerak faltako: dan-tza erakustaldia, erromeria, zan-pantzarrek, Arloteen emanaldia...

Ohituraren jatorria

Felix Mugurutzak historiakaleak San Blas eta herri erritoak aztertu ditu. "Bizirautea bermatzeko egiten ziren", dio. Urtarrila aurrera joan ahala, eguna eta argitasuna luzatu egiten da: "Horregatik, etxeko on-dare handienak babesteko beharra zuten arbasoek; etxe abereak ber-matzen baizieten biziraupena. Hor-tik datoz San Anton egunean egiten diren animalien, korten eta abarren 'bedeinkapenak'".

San Blas egunetan ematen da naturaren esnatzea. Egun horie-tatik aurrera hazten da belarra, zuhaitzen kimatzea edo txorien kantua. "Baserritarrek ongi zeki-ten egun horietan hasten zela natura-ren benetako zikloa".

Herri askotan, otsailaren 2an Kandelario eguna ospatzen da. Argizariak bedeinkatuz, haien tan-tak soroetan botaz lurren eman-kortasuna babesten dute: "Argiza-ria, elementu magikoa da, biziaren eta heriotzaren arteko zubi mate-riala zelako. Babestu eta emankor-tasun helburuz ospatzen da San Blas eguna ere.. Jakiak bedeinka-tu egiten ziren".

Bedeinkapenen bidez etxeko ani-malien eta pertsonen ezarriak ba-besten ziren, "ahoa baitzen garaiko sinismenen arabera gaitzak eta iz-piritu txarrak gure gorputzera eta batez ere arimaraino barneratze-ko bidea". Horren adibide da San Blas egunean elizak bedeinkatuta-ko kordioak jartzeko ohitura. "So-katxo horrek babesa ematen digu, aratusteen amaiera arte. Hauste-rre egunera arte eraman behar da, hau da, Garizumako purifikazio aro-ra arte", zehaztu du.

Laudioz gain, eskualdeko beste herrietan ere izango du eragina jai egunak. Urduñan, esaterako, San Blas-etako tortak egiteko tailerra egingo dute gaur arratsaldean Alondegian.

Info +: Bideoa:

2010eko San Blas azoka **Argazki bildu-ma**: lazko azokako iru-di bilduma



Igor Arzuaga MUSIKARIA

_Kamerinoa

Beti

Bi gauza ezberdin dau-de sorkuntzaren mun-duan: Bata egin nahia eta bestea egitea.

Egiteak arrisku batzuk ditu, erratzearena, noski, baina pro-blematikoagoa da oraindik ere erratu ez zarenaren sentsa-zioa, zeren orduan hasten zara guztia balidatzen, guztia sina-tzen, baita bizitzaren pertzep-zioa... Auto-errekonozimendua-ren bilaketa da, eta bi alde ditu: Bata, deus ere ez egitea bai-no hobeagoa dela. Bestea; ezer ez egitea baino askozaz egoe-rra arrisku suagoan murgiltzen zaituela.


Orduan, zer egin? Argi dago, ausarten mundua Sortzailez beteta dagoela. Sortzaile horiek besteontzako ideiak lan-tzen dituzte eta besteok, ar-tisauak gara haien ausardia-ri esker. Kulturari buruz min-tzo dira, herriaren inguruan ez bada (normalean ez da hau gertatzen, herria oso gai erre-za bai da haientzako) eta beti, ondo edo txarto dagoenaren inguruan ezarriko dute bere epaia. Orduan, gu, artisauek, zer gara? Gu Artearentzako ba-liabide bat gara, ez besterik. Gu, inspirazioaren arreba txikia gara. Eta holan bada, delako, nik ahalik eta pisutsuena den katea erreklamatzeko diot nire orkatilei sorkuntzaren bidez; zeren horrela, bizitzan eman-go dudana pausu bakar batekin kontziente izango naiz zein pun-turaino libre izan naiteken.

Eta noski, pausu hori, baka-rra izango denez, ez da izan-go zerbaiten alde, ez baitut denborarik galduko... Sortzai-le mayúsculo koldar hoi-en aur-ka izango da beti. Edo bestela, egin dezatela zerbait hitz hauek urrats bat izan ez daitezen.

_kultura

_kultur leihoa

WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO
IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak



LITERATURA
**DEMOKRATAK ETA
BIOLENTOK**
Irati Maraño.

"Barka nazatela, arren, etiketa-zaleak ez direnek, baina oraingoan gure pentsalari nazionalaren liburubatu aurkeztu nahi dizuet (...) Idazkera fina du, dotorea, eta haren estiloa ez da astuna..."



ZINEMA
ASIER ETA BIOK
Lander
Arteaga.

"Asier eta Aitor, Aitor eta Asier: Asier ETA biok. Hitz gutxitan, ausarta eta zuzena den dokumental interesagarri bat (...) lan honek erantzunak eman baino galderak sustatzen ditu..."



ARGAZKI BILDUMA: Iñaki Plaza & Band taldearen "Ekhi" lanaren aurkezpena. Ikus gure web orrian

Aiara dantza taldeak 30 urte



Aiara dantza taldeko kideak Amurrioko San Jose auzoan Argazkia: Maddi Isasi

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

30. urtemuga ospatzeko ekitaldi programa aurkeztu berri du Aiara Dantza Taldeak. Lehen ekimena taldearen sorrera data gogoratzuz abiatuko dute: bihar jantzi eta argazki erakusketa bat eskainiko dute La Casona erakusketa aretoan.

Horrez gain salgai dute dagoeneko 30. urtemugaren ospakizunari helduz argitaratu duten egutegia. Taldeko 131 dantzariren partaide-tzaz eskualdeko txoko ezberdinetan hartutako irudiez atondutako egutegia da. 10 euroren truke eskura daiteke taldeak El Refor gunean duen egoitzan, Amurrioko kioskoan eta Garoa eta Sanz liburu-dendatan.

Dantza taldeak aparteko deialdia luzatu die 30 urte hauetan ber-

ton aritu diren dantzari guztiei ospakizunen antolaketara bildu daitezten. Kontaktua biltzeko postontzia zabaldu dute sortu berri duten taldearen webgunean, <http://aiara-dantzataldea.wordpress.com/>-en. Izan ere kontaktu zerranda osatuta, taldekide guztien biltoki izango den bazkari eta erronomia antolatuko dute, maiatza aldera. Bestalde, urtemuga programak barne hartuko ditu Amurrioko jaiei begira prestatuko duten agerraldia eta urte amaieran herriko antzokian eskainiko duten ikuskizuna.

1984ko urtarrilean abiatu zen Aiara Dantza Taldearen jarduna herriko gazte talde batek aurreko urteko jaietan azaldutako asmoari helduz. Egungo talde eragi-

lea 2011az geroztik ari da Amurrioko dantzarien jarduna antolatzen. Amurrio, Aiara eta Laudioko 150 dantzaritik gora biltzen dira egun bertan, 5 urtetik aurrerako adin tarte guztiak barne direla.

Amurrio eta Aiara koadrila inguruko herrietan eskaintzen dituen emanaldi gehienak dantza taldeak. Horrez gain, beraien ekitaldi agendak Euskal Herriko toki ezberdin hartu ohi dituen barne eta hainbatetan nazioartean ere aritu dira, Eslovenian, Argentinan eta Kuban besteak beste.

Info +: Argazki bilduma: Aiara dantza taldeak Eslovenian egindako erakustaldia



Julian Iantzi eta Gurutze Beitia aurkezleen antzerki saioa, Amurrioren

Julian Iantzi eta Gurutze Beitia telebistako aurkezleek "La ultima oportunidad" ikuskizuna eskainiko dute Amurrioko antzokian. Emanaldia larunbat honetan izango da, 20:00etatik aurrera. Sarrerek beheratzi euroko prezioa dute.

Antzezlanaren Galder Perezek zuzendu du eta "inoiz ezagutu behar ez ziren bikote baten istorioan oinarrituta dago".


Musika taldeentzat entsegu lokala egiten ari dira Urduñako gaztetxean

Urduñako gazte asanblada eskualdeko musika taldeentzat entsegu gela prestatzen ari da. Aste honetan ekin diote lanari, kokapen egokiena aztertu eta materiala bildu ondoren. Oraingoan gela insonorizatzen ibili dira.

Azaldu dutenez, obra bukatu bezain pronto aiaraldeko musika talde eta bakarlariekin asanblada bat egingo dute, espazioa eskaintzeko.

ZINEMA UNEAK

Entzun Aiaraldea Irratian zinema eta telesailen inguruko irratsaioa



JUAN MANUEL
Etxebarria Ayesta
IRAKASLEA

_Lurpetik

Arrabako landa gorbeialdean

Hau esaunda hau, gaurko herri-mugak zehaztu baino lehenagokoa dugu. Behinola, Zeberioiko Santo Tomas Alkartea, Arrabako Landaren jabe egin zen bere ganaduen pasturako. Herri-behiak erabiltzen ziren gehienetan, elia loditu eta saltzeko, begipisuan, bizipisuan zein kanalean. Zemendi inguruan eramaten zen behi-elia Arrabako Landara, han, hesi barruan sartu eta sarrerako lata ondo itxita zein behiak alde egin. Elia Arrabako Landan geratzen zen eta jagoleak etxera, noizean behin haronakoren bat eginez. Horrela ibili ziren luzaroan. Baina, urteak joan urteak etorri, propietate kontuak aldatzen joan ziren eta Zeanuriko herriak pleitua jarri zion Zeberiokoari Arrabako Landa zela-eta. Ezbaia ez zen egin epaitegian, Arrabako Landan bertan baino. Zeanuriko eta Zeberioko agintariok elkartu eta hauxe ebartzi hau hartu zuten: Herri bakoitzak hurrengo San Juan egunean jaiotako txahal-zekorra izentatu, hazi eta urteagarrean biak burrukan ipintea Arrabako Landan bertan, eta irabazten duenak irabazten duela, harexentzat izateko Landa estimatu hori. Berbatutako moduan, ipini zituzten urteko zekorrok borrokan, Arrabako Landaren erdi erdian. Zeberiokoa sugertatu zen irabazle baina, halan eta guztiz ere, geroagora, Zeberioak joateari utzi eta onezean eman zion Zeanuriko herriari Arrabako Landa. Bake bat!

KONTRATATU PUBLIZITATEA

AIARALDEA EGUNKARIAN
EDO WEB-GUNEAN

kontsultatu
tarifak eta
eskatu aurrekontua


publizitatea@aiaraldea.com



kirola

GOLFA: Borja Echartek ikastaroa emango du otsailaren 8an Urduñan

Datorren larunbatean golf erakustaldia eskainiko du Borja Echartek Urduñako zelaian. Echarte Bizkaiko golf jokalaririk profesional bakarra da. Ekimena "El Hoyo 19" golf klubak antolatuko du. Saioa 11:00etan hasiko da. Ondoren, galderak egiteko aukera egongo da. Sarre-
ra librea eta doakoa da, baina izena emateko elhoyo19@gmail.com helbidera idazteko eskatu dute.



ATLETISMOA: Euskadiko bi kross txapelketa laster, Amurrioren eta Laudion

Bigarren aldiz jasoko du Amurrioren Euskadiko kross labur txapelketa igande honetan. Partaideak kategoriatan ezberdinetan lehiatuko dira: emakumezkoak eta gizonezkoak. Adinari dagokionez, beteranoak eta helduek egingo dute korrika. Otsailaren 9an, aldiz, Euskadiko kross txapelketa jokatu da Laudion. 9:45ean hasiko da lehia.

ESKUPILOTA: Euskadiko lau t'erdiko eta Neguko txapelketako finalak Aretan

Entzun Luis Mari Urkijo Herriarenak klubeko kideari egindako elkarrizketa



Gaizka Barañano
KIROLARIA

—Helmugari so

Diru laguntza publikoak

GIMNASIA ERRITMIKOA

“Dantzatik baino kiroletik du gehiago gimnasia erritmikoak niretzat”

JUGATXI JIMENEZ (Amurrio, 2000) Aresketa Gimnasia klubeko kidea da. 13 urte baditu ere, txapelketa askotan hartu du parte. Erreginaren Kopan hirugarren sailkatu zen, eta Espainiakoan hamargarren. Kirolaren nondik norakoak azaldu ditu.

ERREDAKZIOA | Nekane Aginako

Jugatxi Jimenezek hamairu urte ditu. Amurriokoa da eta Aresketa klubarekin entrenatzen du. Gaztea izan arren, txapelketa ugaritan hartu dute parte. Guadalajarako Erreginaren kopan hirugarren postua lortu zuen. Espainiako txapelketan, aldiz, hamargarren geratu zen.

Aresketa eta Sakoneta klubekin aritzen da gaur egun. Amurrioren entrenatzen du, astelehenera ostiralera. Guztira, 40 gimnasta aritzen dira prestaketa lanetan.

Martxoan ekingo diote aurten-go txapelketa denboraldiari.

Nondik datorkizu gimnasia erritmikoarekiko lotura?

9 urte nituela hasi nintzen, lagun frogatzeko esan zidalako. Gustatu egin zitzaidan eta gaur arte jarraitu dut.

Zenbat pertsona aritzen zarete Amurrioren?

Gutxi, 40 lagun inguru. Denak gazteak gara. Mutilak ez dira animatzen, neskek bakarrik gaude.

Zer dauka berezia kirol honek?

Oso kirol polita da. Dantza egiten dugu, aparatuekin ibiltzen gara... Lehiaketetara ere joaten gara, bidaiatzera.

Oso ondo pasatzen dugu, nahiz eta postuek eta epaileek mugatu.

Kirolari bezala Santanderren, Benidorm-en, Valladoliden, Granadan eta Guadalajararen egon naiz.

Aresketa klubarekin Benidormen eta Santanderren egon naiz. Sakonetarekin, aldiz, Guadalajararen eta Granadan.

Gaur egun bi talde ditut nik. Sakonetarekin taldeka aritzen naiz, neska batekin. Aresketan baka-

“Astean bost entrenamendu egiten ditugu, egunero hiru edo lau ordu. Gogorra da, baina merezi du”

rrik eta lagunekin. Kolektiboki Sakonetarekin egiten dut, eta indibidualki Aresketarekin.

Nolakoak dira zuen entrenamenduak?

Amurrioren egiten ditugu. Lehenbizi beroketak egiten ditugu. Gero, aparatuekin hartzen ditugu: uztaiak, zintak...

Astean bost entrenamendu egiten ditugu, egunero hiru edo lau ordu.

Gogorra da, klasea ere eguneroko dugulako baina merezi du.

Zein aparaturekin ibiltzen zarete zuek?

Urteka doaz. Aurten zintak eta

uztailak lantzen ari gara.

Orain arte mazoak, pilotak, uztaiak, zintak eta sokak erabili ditugu.

Bat aukeratzekotan zein zenuke hartuko nuke?

Uztailak, baina mazoak ere gustatzen zaizkit. Txapelketan hobekien horiek ematen zaizkit.

Dantzatik ala kiroletik, nondik du gimnasia erritmikoak gehiago?

Kiroletik du gehiago, niretzat. Ahalegin handia egin behar da, saltoak, oreka...

Sariak ere jaso dituzue. Zeintzuk?

Guadalajararen Erreginaren Kopa jokatu genuen. Hirugarren postua lortu genuen.

Espainiako txapelketan ere aritu gara. Hor hamargarren postua lortu genuen, oso ondo, oso pozik.

Taldeka ala banaka, nola nahiago duzu lehiatzea?

Agian baina oso ondo pentsatu behar da. Bakarrizkoan zozazenean urduiago ipintzen zara.

Beste batekin zozazenean ez. Lasaiago joaten zara.

Sariak jasotzean zer sentitu duzue?

Poza. Oso pozik jartzen gara, alaitasun asko.

Lehiaketen aurretik ezer berezirik egiten al duzue?

Ez, berotu, beti bezala. Janari aldetik ezin dugu litxarrerria asko jan. Zaindu egin behar gara.

Pisuak garrantzia du?

Orain ez, baina profesionaletan bai. Ezin dute jan edozein janari, letxuga, entsaladak...

Profesionaletara iristea zaila da?

Hemen inguruan ez da inor sailkatu. Gasteizen bada neska bat profesionaletan, selekziara sailkatu da.

Kirolari gisa baduzu erreferente edo idolorik?

Ez, denak gustatzen zaizkit.

Eta erronka edo ametsik?

Ezta. Jarraitzea gustatuko litzaidake.

Oso ondo pasatzen dut lagunekin.



Zergatik jaso behar dute diru-laguntza publikoa soldata ikaragarriak kobratzen dituzten kirolarien klubek?

Diru-laguntza publikoan helburua ipertsona guztiei kirola egiteko aukera bermatzea izan beharko litzateke eta kirol jardueran ohikoa izan dadin laguntzea, maila guztietan, oinarri-kirola eta gutxiengoan dauden kirolak babestuz, bultzatuz eta sustatuz. Osasunaren Munduko Erakundearen ikerketa baten arabera, kirolean inbertitutako euro bakoitzagatik 3€ aurrezten dira osasun-gastuetan.

Ez liguke beldurrik eman behar esatea bidegabeak, ez beharrezkoak eta gehiegizkoak direla kirol erakunde batzuei instituzioek egiten dizkieten ekarpenak. Esaterako, Izarrako instalazioen inguruan Arabako Foru Aldundiak eta Deportivo Alavés-ek sinatutako hitzarmena. Diru-xahuketa hori gabe foru instituzioak ez luke arazorik izango 2013ko aurrekontuetan diru-laguntzarik gabe utzi zituen Aiaraldeko taldeen eskola-garraioa estaltzeko, esaterako, hain beharrezkoak, bidezkoak eta sozialak diren partidak.

Zuetako askok lerro hauek irakurtzean buruarekin baietz egiten duzuen bitartean, jarra haur beste herrialde eta kirolari estrapolatu beharko genuke, aiararrantzat gertukoagoak izan daitezkeenak, esaterako Athletic, Baskonia, Euskaltel...

ESKOLA publikoA gure APOSTUA

2014 - 2015
IKASTURTEA



Matrikula epea: otsailaren 3tik 14ra

On-line eskabidea otsailaren 13ko 24:00ak arte / www.hezkuntza.net



ZABALEKO IKASTETXEA



S. Jose Auzoa - 01470 Amurrio (Araba)
Tfno.: 945 890 462 - Fax: 945 891 724
email: 010003aa@hezkuntza.net



ZARAobe INSTITUTUA



Etxebarriaur, 8 - 01470 Amurrio (Araba)
Tel.: 945 393 000 - Fax: 945 393 682
email: zaraobe@zaraobe.net - www.zaraobe.net



etxAurren IKASTOLA



Ibaguen auzoa, 1 - 01477 Zuhatza - Aiara (Araba)
Tel.: 945 399 287 - Fax: 945 399 346
email: 010165aa@hezkuntza.net - www.etxaurren.ikastetxea.net



**Arteko gure AMA
Herri IKASTETXEA**



La Bárcena, 1 - 01474 Artziniega (Araba)
Tel.: 945 396 046 Fax: 945 396 520
email: 010010aa@hezkuntza.net / zuzen@artekogureama.com www.artekogureama.com



**LUCASREY Herri
IKASTETXEA**



Lucas Rey kalea, 15
01470 Amurrio (Araba)
Tel. - Fax: 945 890 481
email: 010327aa@hezkuntza.net

_Herriko plaza

_Lagurrak



Edorta

Urtarrilaren 31an 6 urte egiten duzulako. Zorionak asko maite zaitugu. Ama eta aitaren partez. **Edorta eta Nerea**



Joseba

Zorionak Joseba! 28 urte tagero zure kuadrillak eguna ondo disfrutatzea opa dizu. **Lagunak**



Danel eta Oihan

Kaixopotxoloak! Urtebete gehiago, Zorionak! Otsaila honetako 14ean Danelek 6 urte beteko ditu, eta 10ean Oihanek 7. Ze nagusiak! Jarrai ezazue jo ta ke jolas eta jolas aurpegi alai horiekin! Topera ospatu urtebetetzea eta ea laster, lehenengo aldiz zuen bizitzetan, merendolara joateko aukera izaten dudan. Muxu handi bat! **Zuen aitite Pablo**



_BIDALI ZUREA!

Bidali zure mezua eta argazkia agurrak@aiaraldea.com-era eta otsailaren 13ko alean argitaratuko dugu!

PROMOZIO BERRIA

KANPORA EMATEN DUTEN 6 ETXEBITZTA
K/ KARMEN 7 (TOLO TARBENAREN ONDOAN)

3 LOGELA
GARAJEA ETA
TRASTELEKUA

240.000 €

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:
94 672 85 50

etxaurre
inmobiliaria

XARMANT Txakolina
Ardo desberdin batez gozatu

Txakoli
Xarmant

AMURRIO (ARABA) TLFNOA: 945 89 12 11
WWW.XARMANT.ORG

JABERIZKO IZERA
ARABAKO TXAKOLINA
TXAKOLI DE ALAVA
DENOMINAZIOA DUTEN

_botikak

URTARRILAK 30

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

URTARRILAK 31

Laudio: EGUIA
(Zumalakarregi 13)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo, 11)

OTSAILAK 1

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo, 11)

OTSAILAK 2

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Amurrio: HERNANDEZ
(Elexondo, 11)

OTSAILAK 3

Areta: AIS
(Gasteiz kalea 2)
Amurrio: PEREDA
(Landako 28)

OTSAILAK 4

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Arespalditza: CACERES
(Udaletxe 19)

OTSAILAK 5

Laudio: FUERTES
(Ardantzazar 9)
Amurrio: YARZA
(Elexondo, 33)

OTSAILAK 6

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

OTSAILAK 7

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

OTSAILAK 8

Laudio: EGUIA (Zumalakarregi 13)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

OTSAILAK 9

Laudio: EGUIA (Zumalakarregi 13)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

OTSAILAK 10

Laudio: FUERTES
(Kamaraka 4)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

OTSAILAK 11

Areta: AIS
(Gasteiz kalea 2)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo, 11)

OTSAILAK 12

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

> 2.500 herritar baino gutxiago dituzten herrietan ez dago guardiarik farmazietan.
(Jasotakoak gaueko guardiak dira)

_merkatu txikia

ALOKAIRUAN

PISUA LAUDION
Jose Matia kalean dago, 2 gela,
2 komun, trasteroa eta garajea.
620137027

SALGAI

OHE ARTIKULATUA
Hilabete batez erabilia. 90X1.90
neurrikoa. Prezioa jakiteko mezu
pribatua bidali.
[https://www.facebook.com/
javi.gonzalezcampos](https://www.facebook.com/javi.gonzalezcampos)

**UMEENTZAT SEGURTASUN
BARRERA**
Prezioa: 25€
[https://www.facebook.com/
elias.gallastegialba](https://www.facebook.com/elias.gallastegialba)

BIGARREN ESKUKO TXELOA
Umeentzako egokia
gibarluzea@gmail.com

POWERWING
Zaindua eta gutxi erabilia
Prezioa: 45 euro
oihanean@hotmail.es

**UMEENTZAT TABLET-A
STORIO-2 (2013)**
Kargadorea, 6 joko, 2 funda eta
babesteko psilikonarekin
Prezioa: 100€
679260533

TXORI KAIOLAK

Karnaba eta kanarioentzat
Prezioa: zehazteke
942650516 (Curro)

TABERNETARAKO ONTZITEGIA

Negozia ixtearen ondorioz
kaferako, kubatetarako eta
garagardotarako edalontziak.
Prezioa: zehazteke
663346745

BILA

BINILO DISKOAK

Urduñan bizi naiz baina Amurrio eta
Laudiotik pasa naiteke.
Ernesto Navarro
amluser@hotmail.com

**HAURREN ZAINTZARAKO
GELA-ARTEKO
INTERKOMUNIKADOREAK**

Bigarren eskuko ahots
interkomunikadoreak bilatzen nabil
669835787

LAN ESKAINTZAK

**KLASE PARTIKULARRAK EMATEKO
PERTSONA**
LH eta DBH mailetako magisteritza
diplomatura. Esperientzia handia.
Talde txikiak egiten ditut prezio oso
ekonomikoan.
636279579

etxaurre
inmobiliaria

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 115.000 €
71 m², 3 logela, bainugela, jakitokia, kanpoaldera, eraberritzeko, altzariz hornitua, herrigunean.
Erref.: 167408

PISUA SALGAI URDUÑAN
Prezioa: 165.000 €
45 m², logela, bainugela, sukalde amerikarra kanpoaldera, igogailua, altzariz hornitua, trastelekua, eraberritua.
Erref.: 142771

PISUA SALGAI UGAON
Prezioa: 120.000 €
45 m², 2 logela, bainugela, sukalde kanpoaldera, eraberritua, altzariz hornitua, herrigunean, prezio negoziagarria.
Erref.: 164906

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 142.000 €
63 m², 2 logela, bainugela, terraza, trastelekua, altzariz hornitua, eraberritua, prezio negoziagarria.
Erref.: 129702

PISUA SALGAI LUJIAONDON
Prezioa: 150.000 €
55 m², 2 logela, bainugela, kanpoaldera, eraberritua, balkoia, altzariz hornitua, prezio negoziagarria.
Erref.: 162762

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 129.780 €
70 m², 3 logela, bainugela, komuna, egongela tximiniarekin, kanpoaldera, balkoia, eraberritzeko, garajea aukeran, prezio negoziagarria.
Erref.: 134309

PISUA SALGAI ARRESPALDITZAN
Prezioa: 250.000 €
95 m², 3 logela, 2 bainugela, kanpoaldera, balkoia, trastelekua, igogailua, bi autoentzako garajea, altzariz hornitua, prezio negoziagarria.
Erref.: 165646

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50



_herriko plaza

_agenda

01.30 OSTEGUNA

10:00 AUDIO **AURKEZPENA**
Terentzio VII. txerriaren aurkezpena Plazan

18:00 AMURRIO **KONTZERTUA**
Meren kantautorea Hauspoa elkartean

18:00 LUIAONDO **HITZALDIA**
Gripea Gizarte etxean

01.31 OSTIRALA

17:00 ARETA **TXAPELKETA**
Euskadiko lau t'ardi eta Herriarenak Neguko txapeleketako finalak Frontoian

17:30 URDUÑA **IKASTAROA**
Euskal dantzak Gaztetxean

19:00 OROZKO **HITZALDIA**
Elikaduraren inguruko jardunaldiak Donibane aretoan

19:00 OROZKO **HITZALDIA**
Abortoaren legea Gaztetxean

19:30 URDUÑA **MOBILIZAZIOA**
Presoen aldeko elkarretaraztea Foru plazan

22:00 OROZKO **KONTZERTUA**
Five Corners eta Izate faltsua Gaztetxean

02.01 LARUNBATA

SAN BLAS EGUNA LAUDION

10:00 **AZOKAREN IREKIERA**. Baserritar eta artisauen produktuak. Aldai plazan.

11:00 **Aiaraldea Irratiaren zuzeneko saioa** Aldai plazatik

13:15 **BASERRITARREI OMENALDIA**. Pantxi Ibarra eta Jose Antonio Unzaga Aldai plazan

18:00 **DANTZA IKUSKIZUNA ETA GAZTAIN JANA**. Laudioko dantza taldeak. Aldai plazan

19:00 **ERROMERIA**. Fi ta fik. Aldai plazan

20:30 **TXERRIAREN PISAKETA**



12:30 AUDIO **MOBILIZAZIOA**
"Gure esku dago", herri argazkia Herriko plazan

16:30 AMURRIO **TXAPELKETA**
EHko mus txapelketa Txokogorri tabernan

18:00 AMURRIO **TXAPELKETA**
Poker txapelketa Kukumarro elkartean

19:00 AUDIO **KONTZERTUA**
Frantzeska talda Orbeiko etxean

21:00 AUDIO **KONTZERTUA**
Hauspoaren aldeko jaia Orbeiko etxean

22:00 AUDIO **KONTZERTUA**
Sin mas, The Crow farm eta Mexikan Food (3€) Drumgorri aretoan

22:00 AUDIO **KONTZERTUA**
Uluka Keska tabernan

23:30 AUDIO **KONTZERTUA**
Pisontxis eta 20.06 Gaztetxean

02.05 ASTEAZKENA

18:30 AUDIO **BILERA**
Santa Luziako jai batzordea Kultur etxean

02.06 OSTEGUNA

18:30 AUDIO **MOBILIZAZIOA**
SOS Lamuza parkea Lamuza parkean

02.07 OSTIRALA

18:00 AUDIO **IKASTAROA**
Haurdun daudenentzat gimnasia saioa Kiden zentroan

17:30 URDUÑA **IPUIN KONTALARIA**
Enaitzen ipuinak gaztetxean

22:00 AMURRIO **JAIALDIA**
Pilota jaialdia frontoian

20:30 URDUÑA **JAIALDIA**
Pintxopotea Gaztetxean

02.08 LARUNBATA

10:30 AUDIO **IKASTAROA**
Justizia zaporeko sukaldaritza Zubiko etxean

17:00 ARRANKUDIAGA **GAZTE BURRUBADA**
Olinpiadak Herriko plazan

20:30 ARRANKUDIAGA **KONTZERTUA**
Uluka, A gantxo y kutxillo, Nodo, Atxurkada, Landazuri Bass Foundation eta Dj Gorka Iberlandan

20:00 AUDIO **KONTZERTUA**
Keegan Mcinroe eta Euskal-Amerikar jam sessioa Keska tabernan

20:00 AMURRIO **ANTZERKIA**
Terapias Amurrio antzokian

22:30 AUDIO **KONTZERTUA**
Txapa eta pintura, Al infierno en goitibehera Drumgorri aretoan

02.09 IGANDEA

10:00 AUDIO **EUSKADIKO KROSS TXAPELKETA**
Lamuza parkean



11:30 ARRANKUDIAGA **AZOKA**
Truke azoka Herriko plazan

_ikusmiran

ZINEMA

02.01 LARUNBATA

"LA LEYENDA DEL SAMURAI"
LAUDIOKO LHUI
17:30etan eta 20:00etan (3€)

02.02. IGANDEA

"FUTBOLIN"
DONIBANE ARETOAN
16:30etan

"CAMINANDO ENTRE DINOSAURIOS"
AMURRIO ANTZOKIA
17:30etan (3.6€)

"LAGRANFAMILIA ESPAÑOLA"
DONIBANE ARTEOAN
19:00etan

"SOBRAN LAS PALABRAS"
AMURRIO ANTZOKIA
19:30etan (4.8€)

02.07 OSTIRALA

"HOBETZEKO BIDEA"
APDEMAREN LABURMETRAIA
AMURRIO ANTZOKIAN
19:00etan

02.08 LARUNBATA

"LA VIDA SECRETA DE WALTER MITTY"
LAUDIOKO LHUI
17:30etan eta 20:00etan (3€)

02.09. IGANDEA

"VAYA PAVOS"
DONIBANE ARTEOAN
16:30etan

"LA LADRONA DE LIBROS"
DONIBANE ARTEOAN
19:00etan

"ISMAEL"
AMURRIO ANTZOKIA
19:30etan (4.8€)

BEREZIAK

AGATE DEUNA

URDUÑA

02.01. LARUNBATA. Egun osoz **Kintoak, auzoz auzo diru eske**
TOKIA: Plazatik

AMURRIO

02.04. ASTEARTEA. Egun osoz **Kintoak, auzoz auzo diru eske**
TOKIA: Baranbio, Lezama, Saratxo, Larrinbe, Izoria...

ARTZINIEGA

01.31. OSTIRALA. 18:00etan **Agate deuna tailerra**
TOKIA: Artziniegako museoa

02.04. ASTEARTEA. 11:30etan **Arteko gure Ama eskolaren kantu emanaldia**
TOKIA: eskolan

ARRANKUDIAGA

02.04. ASTEARTEA. 16:30etan **Agate Deunaren kantu kalejira**
TOKIA: Plazatik

OROZKO

02.02. IGANDEA. 12:00etan **Meza eta pintxo jana**
TOKIA: Olarten eta Ibarra

02.04. ASTEARTEA. 15:00etan **Abesbatza kalez kale**
TOKIA: Plazatik

OKONDO

02.02. IGANDEA. 12:30etan **Kantu kalejira**
TOKIA: Okondoko kaleetatik

02.04. ASTEARTEA. 10:00etan **Eskolako kantu kalejira**
TOKIA: Okondoko kaleetatik

LAUDIO

02.04. ASTEARTEA. 17:30etan **Kantu kalejira**
TOKIA: Basalarrinatik

_ezin galdu



"MUNDUARI ITZULIA" IKUSIKIZUN MUSIKALA AMURRION: Umeentzako antzerki musikala jasoko du Amurrio Antzokiak otsailaren 9an. Emanaldia igandean izango da, 17:00etan. Gorakada antzerki taldearena da lana. Sarrerek 5 euroko prezioa dute.

_merkatua

BASERRITARREN AZOKAK
AIARALDEAN

OSTEGUNA

> AUDIO Herriko Plazan
DENETARIK

OSTIRALA

> AMURRIO San Anton plazan
DENETARIK

LARUNBATA

> URDUÑA Hileko 1º larunbata
Foru plazan

> OROZKO Herriko Plazan
OGIA ETA GAZTA

PREZIO ORIENTAGARRIAK
MERKATUETAN

BARAZKIAK

Azalorea edo aza	1-1.2 €/alea
Letxuga	0.90-1 €/alea
Azelgak	2 €/kg
Brokolia	1-1.2 €/alea
Arbia	1 €/alea
Eskarola	1 €/alea
Kalabaza	2 €/kg
Indabak	8-10 €/kg
Porrua	1.50 €/sorta
Kiwiak	3 €/kg
Intxaurrak	6 €/kg

BESTEAK

Arrautzak	3 €/dozena
Gari ogia	2.30 €/kg

_kontra

Floren Usia



Irati
Marañon
ITZULTZAILEA

_Leihotik

Txikitako abestiak

Mario Corral Lurperatzailea

“Heriotzari ez zaio beldurrik izan behar, hilak baino arriskutsuagoak dira bizirik daudenak”

MARIO CORRAL (1968, Amurrio) lurperatzailea da. Hamazazpi urte daramatza Amurrioko hilerrian lan egiten. Bere esku balego gezurrak lurperatuko lituzke. Heriotza jakin-min handia pizten duen gaia dela dio.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Mario Corralek Amurrioko hilerrian egiten du lan. Ogibidez, lurperatzailea da. Alabaina, musikariko zaletasunak dj lanak eta hainbat irratsaio egitera animatu du. Naturarekiko zaletasuna ere nabari zaio.

Lurperatzailea eta dia, a ze konbinaketa!

Bai! Eta naturazalea eta nire etxeko sukaldaria ere banaiz!

Gaztetatik musika ezberdinak gustuko izan ditut. Disko bil-tzail-lea



naiz eta musika hori konpartitzea gustatzen zait. Horregatik, noiz-behinka musika sesioak eta irrat-saioak egin ditut.

Lurperatzaile lana, aldiz, langabezia nengoe-la atera zitzaidan. Aukera atera zen eta gaur arte 17 urte daramatzat.

Txikitari zer izan nahi zenuen?

Ez dut

gogoratzen, hainbeste denbora pasa denez... Beti gustatu izan zait naturaz eta inguruneaz disfrutatzeari. Lorazain eta basozain izateko ikasi nuen, eta azkenean hildakoen lorategia zaintzen bukatu dut.

Jendeak zer esaten dizu lurperatzaile zarena esatean?

Hasieran ez dira ezer esatera ausartzen baina gero galdera "morbosoak" egiten hasten dira; ea hildakorik mugitu den... Jakin-min handia pizten duen gaia da heriotza.

Heriotzari beldurra izan behar zaio?

Hildakoei ez. Heriotzarekin kontuz ibili behar da, ezin da zorakeri asko egin bestela... Hildakoak baino arriskutsuagoak dira bizirik daudenak.

Ba al da hilerri bat baino leku baketsuagorik?

Toki lasaia da. Txoriak entzuten dira.

Hil eta gero, salda bero?

Ez dakit. Hemen hezurak eta batzuentzako oroitzapena besterik ez da ikusten.

Hobietara esamoldeak dioen adina sekretu eramaten dira?

Ziurrenik bai. Niri bitxikeriarik ez zait gertatu, oraindik ez dut sekreturik aurkitu. Pirata baten altxor mapa ondo legoke

Zure esku balego zer lurperatuko zenuke?

Gezurra. Gezurra txarra da, hobe da egia ezagutu edo berreskuratzea. Ziur aski, jende asko hiltzen dela gezurrak esanda.

Katuek bezala zerk beharko lituzke zazpi bizitza mundu honetan?

Ausardiak, duintasunak, errespetuak, maitasunak...

Naturzaletasuna nabarmenduko nuke nik. Guk gero eta gehiago ezagutzen eta errespetatzen dugu ingurumena, baina azpiegiturek ez.

Askotan galdetu izan diot neure buruari zer abesti jartzen zieten gurasoek Espainia aldeko haurrei autoan. Hau da, zer abestik markatu ote dituzte euren haurtzaroko bidaiak? Atzera begira jarri, eta konturatzen naiz jaso dugun heziketa sentimentala izugarri aberatsa dela. Esate baterako, txikitari, Benito Lertxundiren eta Mikel Laboaren abestiak entzun genituenok XV. mendeko khantoriak eta poema epikoak ikasi genituen buruz, bai eta abesti ezin modernoagoak ere. Ez genuen ulertzen zergatik aipatzen ziren Ozaze Jaurgainiko bi zitroin doratüak. Beldurra ematen zigun "Baga, biga higaz" hasten zen abesti sinietro samar hark, baina antzematen genuen, nolabait, berezko mundu baten osagaiak zirela guztiak. Badakit aurrera egin behar dela, nostalgiko jartzeak ez duela zentzurik, baina "euskal unibertsoa" delakoa galdu nahi ez bada, funtsezkoa iruditzen zait horiei eustea, eta belaunaldi berriei helaraztea. Eta gurasoek egiten ez badute, hezkuntza-sistema arduratu beharko da, ez?



AURREMATRIKULA ZABALIK:
OTSAILAREN 3tik 14ra

IES Ludio BHI

DBHko B eta D ereduak

ESKAINITZA ZABALA:

- Diruz lagundutako garraioa eta jantokia
- Ingelesa indartzeko proiektua
- Ibilbide osoa lan mundura edo Unibertsitatera
- Aniztasunaren trataera
- Erasmus +
- Gela guztiak informatizatuak



Tfnoa. 94 672 00 86 / Fax 94 672 26 19 / Zumalakarregi 34. 01400 Ludio-Llodio
www.ludioinstitutua.net